f) Como cualquier otro idioma, el euskara posee modismos muy variados. Desde el comienzo del proceso del aprendizaje hay que hacer una utilización gradual y constante de los mismos, con el objeto de que los alumnos lleguen a un dominio expresivo de la lengua: interjecciones, refranes, palabras tabú, clichés, términos de iniciación de frases,

Arraioa
Arranapola
Arranetan
Kaiku-Kirten
Tuntun
Txatxua
Txokila

«Nori berea da zuzenbidea»
«Etxean otso ta kanpoan uso»
«Geroa al ferraren leloa»
«Etxeko lahatzak daki etxeko berri»

Adarra jo!
Lehengo lepotik burua!
etc...

**ELEBITASUNARI BURUZKO
PLANGINTZA ETA
PROGRAMAKUNTZA OROKORRA**

ELEBITASUNARI BURUZKO PLANGINTZA ETA PROGRAMAKUNTZA OROKORRA

1. HURBILPEN SOZIO-LINGUISTIKOA

Elebitasunaren programateka bat ezin daiteke egoki plantea, tokian tokiko egoera soziolinguistiko berezi eta zehatza kontutan hartzeke.

Hizkuntzaz den bezainbatean, praktikoa eta operatiboa izan daitekeen honako banaketa hau egin ohi da:

- **Euskal zona;** «Area Vascófona» delakoaren barnean dauden populazioak hartzen ditu, Donostia salbu.
- **Zona berezia;** hiriburuak eta Euskal zonaz kanpo dauden zenbait hiri-tankerako populazioak hartzen ditu.
- **Erdal zona;** zona berezian eta euskal-areaz kanpo dauden populazioak hartzen ditu.

Ikus daitekeenez, hizkuntza kontutan hartzen dugularik, zona oso bereziak topatzen ditugu E.H.an. Hizkuntzaren egoera hau, ordea, ezin daiteke zenbaki hotzeten har, hau da: egoera erabat estatistika bailitzen. Azpimarratu beharra dago, egoera erreala beste bat dela, alegia, zona guzietan berreuskalduntze prozesu dinamiko bortitz eta indartsu bat nabaritzen dela.

Eta SIADECOren azterketa sozio-linguistikoak argi eta garbi erakutsi duenez, E.H.ko biztanleen jarrera, bilinguismoari buruz, erabat aldekoa da.

Bestalde, azken urteotako historiak garbi utzi du, jarrera hori praktikara eraman duela E.H.k, ikastolen mugimenduak eta alfabetakuntzak erakusten duenez, nahiz eta egoera politikoa batere aldekoa ez izan.

Mugimendu hau ez da euskal zona hutseko gertakizun soil bat izan, zeren eta zona berezi eta erdal zonetan ere eskabide hau nahiko bortitza izan da, ondoren jartzen ditugun datuek frogatzen dutenez.

	Ikastola Kopurua	Ikasle Kopurua	% Ikas. lego guztiari buruz
Donostia	16	8.765 (2)	31 %
Bilbao aldea+Enkartazioa	27	4.810 (1)	43 %
Arabako erdal herria	10	1.367 (2)	88 %
Nafarroako erdal herria	12	2.247 (1)	73 %
G U Z T I R A	65	17.189	43 %

(1) Oharra: datu hauk 1977-8go ikasturtekoak dira

(2) Oharra: datu hauk 1976-7go ikasturtekoak dira

Zifra hauk, besterik gabe, berez aski gora mintzo dira.

2. EGUNGO EGOERA ELEBITASUNARI BURUZ

Egorea hau kontutan harturik, irakaskuntzak, garbi ageri denez, ez dio erantzun egoki bat eman, eta bestalde, planteatu duenean inolako programakuntza arrazoizkorik gabe egin du: planteamentu koherente eta integral baten falta nabari bait da.

Elebitasunari dagokionez, E.H.ko irakaskuntzaren egoera grafi-koki eta labur modu honetan errepresenta daiteke:

Erdera hutsa	Euskara gai	Ikastolak
Joerea asimilazio-nista hutsa	Joera reduk-zionista	Kultur-elebitasun orekatua

Hiru jarrera hauk muturrekoak dira, kontrajarriak, eta esan dezagun, halaber estankoak (elebidun eskoletan aplikatzen diren ereduak beste segmentuetara aplikagaitzak direlarik).

E.H.ak, era askotako jokabideren bitartez, bere hizkuntza nazionala den euskara, eremu eta herrialde guzietan mailaz-maila berreskuratzeko gogoa agertu badu, helburu hori elebitasun orekatu baten bidetik bakarrik lor daiteke. Beraz, bai joera asimilacionista bai redukzionista labur geratzen dira.

Lehenengo bi joera hoiak gorago aipatutako eskabidearen kontra doaz, eta nahitaez elebitasun orekatu batetara heldu behar da eskabide horri erantzun egoki bat ematekotan.

Hala eta guztiz ere, gorago ikusi dugunez, egoera eta ahalbide desberdinak daudela ikusirik, ez da posible eredu eta programakuntza baten arabera elebitasun orekatu honetarantz abiatzea.

Are gehiago, zenbait kasutan, euskara gai bezala irakastea baino ez da posible izango. Une honetan, hau gaitzerdi bezala onhartu beharra dago, baina beti elebitasun orekaturako aurrebide huts bezala ikusiz. Dena dela, jokabide honen emaitzak nahiko

eskasak izango dira, hizkuntza teorikoki ezagutze hutsean geratzeko arriskua bait dago.

Argi gera bedi, elebitasunaren helburua bi hizkuntzak harrematarako eta irakaskuntzarako tresna eta bitarteko bezala erabiltzea dela. Elebidun irakaskuntzaren programaketa hezieraprograma batetan mamitu behar da, haurra eskolaurretik piskanaka hartu bere lehen hizkuntzarekin, eta gero eta modu sendoago eta egiazkoago baten bitartez bigarren hizkuntza hori eskolako ekintza eta esperientzietan txertatuz eta zertuz. Honetara bigarren hizkuntzen ikasketa erabat heziera prozesuaren osotasunean errotu behar da, harremanetarako eta bizitzarako tresna egoki bilaka dadin.

Helburu hori lortu ahal izateko, ordea, hizkuntz irakaskuntzaren prozesua ezagutu eta errespetatu behar da, eta prozesu horrek eredu desberdinetara behartuko gaitu, lorpenen maila eta tokian tokiko egoera sozio-linguistikoa kontutan harturik. Horrela, prozesu hori zenbait programaketa ezberdinetan mamitu beharko dugu.

3. HIZKUNTZ IRAKASKUNTZAREN PROZESA

M. De Greve eta F. Van Passel-i bagagozkie, prozesu zehatz eta mailakatu baten barruan, garrantzi handikoa da ikasmaila bakoitzen helburu edo iriskizun berezia azpimarkatzea, eta honelako eskema batetan agertzen dute beren ikuspuntuak:

- I. APRENDIZAIA (Hizkuntza komunikabide bezala).
 - A. Haserako ezagupena.
 - B. Oinharrizko hizkuntz ezagupena eta ezagupen aktiboaren erreborrapena.
- II. HOBAKUNTA (Hizkuntza expresabide bezala).

«Modern Language Association of America» erakundeak bere **Four Growth Goals for Language Teaching** liburuan honako lau helburu hauk proposatzen ditu:

- 1) **Entzutezko ulermena**, eta honetarako ikaslearen baitan hizkuntza-objetu arrunta ulertzeko gaitasuna landu behar da.
- 2) **Mintzamena** eta honetarako libreki eta erraztasunez expresatzeko gaitasuna landu behar da, korrektotasun eta jariakortasun egoki samar baten mailan.
- 3) **Irakurmema**, hau da, textu imprimatuak aldizkari edo egunkari ez-espezializatu batetatik hartuak, bere kabuz irakurtzeko gai izan behar du ikasleak, eta ongi ulertzeko, elkarritzetako hizkuntzaz idatzirik baldin badago batipat.
- 4) **Idazmena**, bere burua idatziz expresatzeko gai izan behar du ikasleak.

Ikus daitekeenez, helburu aski orokorrak dira MLAA-K eskaintzen dituen hauk eta glotodidakak hiru bat mailatan banatzen dute hizkuntz hazkundea: **haserako ezagupena, ainharrizko ezagupena eta hobakuntzazko ezagupena**.

- **Haserako ezagupen** honek zer eskatzen duen ikustetik hasiko gara eta hizkuntza jakiteak suposatzen dituen lau trebetasun orokoren arabera egingo dugu.

a) **Ulermenari** dagokionean, ikasleak gai izan behar du jaio-tzatiko hiztun baten eta hiztun berri baten arteko elkarrizketa segitzeko eguneroko bizimoduko gai desberdinei buruz ari direlarik 1.000 bat hitzetan edo esamoldetan oinharriturik, eta 20 bat egitura sintaktikoz baliaturik, eta guztiau minutuko 100 bat hitzetako abiaduraz.

R. Michea, Gongenheim, Palmer, Passy eta Van Passel bezalakoen ikerketan eta esperientzian oinharritzen da eritzi hau.

b) **Mintzamenari** dagokionez, lehen aipaturiko 1.000 hitz horiez (funtzio hitz, substantibo, aditz, adberbio eta adjektiboz) baliaturik minutuko 100 hitz baino zerbait gutxiago erabiliz hitz egitea lortu behar du ikasleak zeren eta pausaldi asko egin behar baitu mintzaterakoan. Funtsean, elkarrizketan partaide izateko gutxienez behar dituen hizkuntz elementuen jabe izan behar du, eta solaskideari ulertzen ez dion bakoitzean azalpen bat eskatzeko gai izan behar du ikasleak. Esan beharrik ez dago, maila honetan ahozkera, intonazio eta erritmo hutsak ugari samar egin behar dituela, zeren eta hizkuntza komunikabide baita lehenik. Hiperkorrekzioa lortu nahi izatea kaltegarri gerta daiteke komunikapenerako. Zentzuz jotaku behar du irakasleak, eta oinharrizko egiturez jabetzeari traba handiegirik jarri gabe. Sarritan, ikasleak bere hizkuntzan ere ez duen bezalako korrektotasun fonetikoa lortu nahi izaten da 2 hizkuntzaz eta hori utopia bat proposatzea da.

c) **Irakurmena.** Gutun bat, komunikapen labur bat, ohar erraz batzu, zenbait gertakari eta kondakizun ulertzeko gai izan behar du ikasleak aipaturiko 1.000 hitz horien barruan.

d) **Idazmena** maila honetan, irakurmenari buruz esan duguna modu beretsuan idatziz adierazteko gai izan behar du ikasleak.

Batekoz beste 200 bat ordutako ihardunaren ondorioz lor daiteke lehen ezagupen maila hau. Hala ere, helburu berau lehenago iristea ere posible da ikasleek aurretiaz ezagupenen batzu baldin baditzte. Ikastaldiaren intentsitateak eta taldea osatzen duten ikasleen kopuruak ere zeresan handia du puntu honetan. Kopuruari dagokionean, 8-10eko taldeak jotzen dira hoberentzat.

- **Oinharrizko ezagupena**

Bidaia batetarako edo talde hertsi batetan gerta daitekeen elkarritzketa erraz batetarako aski izan daitekeen arren **haserako maila**, gizarte batetan eta erregularki harremanetan egon nahi dezanak **oinharrizko ezagupen maila** lortu beharra dauka. Hona hemen lau trebetasunen arabera zer suposatzen duen ezagupen maila honek:

a) Ikastaldi hau bukatzean, hizkuntza horretako bi hiztunen artean eta eguneroko gauzei buruz gerta daitekeen elkarritzketa bat segitzeko gauza izan behar du ikasleak.

2.000 lexikal agerpen inguru menderatzea eta maizenik giro horretan agertzen diren esakera berezi multzo bat ezagutzea eskatzen du horrek. Mintza erritmoak, minutuko 150 bat hitzetakoia izan behar du, gutxi gora behera.

Hiztegi hau urria dela iruditu arren, berauen bitartez sortutako agerpen semantikoak askozaz ugariagoak direla aitortu behar da. Adibidez, Michael West-ek 1.490 hitzen bitartez 24.000 agerpen semantiko eskaintzen ditu frantseserako.

Oinharritzko egiturei dagozkien transformakuntz ahalbide guztiez baliatzeko gai izan behar du ikasleak, hots, aurreko mailan ikasitakoez eta oraingo honetan ikasiko dituen berriez. Hitzen balio funtzional desberdinez ere jabetzen hasia egon behar du.

Hitz egitean abiadura bizkorragoa erabili da, hau da, irratibidezko elkarrizketa batetan edo TV-koan ematen dena eta ikasleak lokutore argi eta zehatz baten mintzamoldea ulertzeko gai izan behar du, eta ez aurrez prestaturiko eta gai jakin batzuri buruzko hizketa soilik. Honek ez du esan nahi kaleko eztabaidea bat eta bapateko esamolde labur batzu argi ulertzeko gai izango denik, baizik eta gizarteko bilera bat, telefonozko mezu bat, gai orokor bati buruzko hitzaldi bat, oro har, ongi samar ulertzeko gauza dela, ikastaldian erabili den bezalako eredu baten arabera gutxi gora behera.

Euskaldunon kasuan, zaitasun gehiago aurki daiteke, zeren eta gutxi baitira metodoetako euskara batu baten arabera jendeaurrean zehazki mintzatzen direnak.

b) **Mintzamena.** Normalki, nahi duena ongi adierazteko gai izan behar du ikasleak; adibidez, bezeroekin, negoziokideekin, ikas eta landideekin, irakaslearekin, etab, eta bere ideiak aski erosoki azaltzeko gai izan behar du, nahiz eta jaiotzatiko hiztun baten adinako abiadurarik ez ukan. Batekoz beste minutuko 100 bat hitz esateko gai izan behar du; eta aurretiaz prestatuz gero hitzaldi bat edo txosten mintzatu bat emateko ere bai.

Ahozkerak, berriz «onhargarria» izan behar du; egin ditzan ahotsek ez dute entzulegoaren ulermena eragozteko eta gehiegi nekarazteko modukoak izan behar. Ez da, beraz, harritzekoa izango azentuapenean, intonazioan eta erritmoan zenbait oker egitea.

c) **Irakumena.** Ikasleak edozein gutun, irakurtzeko gai izan behar du, berau oso espezializatua ez bada behintzat; teatro lanak irakurtzeko ere bai (noizbehinka hiztegiaz baliatuz); albiste emanaldi bat ere oro har, ulertzeko gauza izan behar du, nahiz eta esamolde guztien zentzu zehatzaz ez jabetu.

Nobelak ere 85%-n uler ditzake, zaitasun gehiagoz eta hiztegiaren laguntzaz. Hala ere, maila honetan ez da posible literatura-ren irakurle oso bat izatea eta irakurgai mailakatu batzuren arabera ihardun beharko du. Liburu asko baino gutxi eta astiro irakurtzea hobe, gehiegi eta alferrik neka ez dadin.

d) **Idazmena.** Gutunak, txostenak eta oharrak idazteko gai izan behar du eta espezializazio handiegirik eskatzen ez duten idazlan

eta estudiantxoak burutzeko ere bai. Gai berezietako hiztegi zehatza menderatzeak ordu gehiago eskatzen ditu, baina beste 200 bat orduren buruan bigarren maila hau menderatutzat eman daiteke. Hala ere, 200 ordu horik ez dago beti klasetan sartu beharrik, gero eta beharrezkoagoa baita lan pertsonala. Maila honetako ikaslea ongi nahi baldin bada, taldeetako kopurua ez da 8tik igo behar eta kopuru hoberena 4-8 bitartekoia izan daiteke maila honek eskatzen duen harreman pertsonala.

Hemendik gorako kopuruek etekin eskasagoak ematen dituzte.

– Hobakuntzazko maila

Aurreko bi mailetan lortu dena **sakontzea** eta hobatzea du helburutzat 3. maila honek, komunikabide ezezik, expresabide egoki ere izan dadin. Hizkuntz irakasle eta itzultzaleen maila baino beheragokoa izango litzateke; beraz, ez litzateke «espezializape-nezko» maila bezala hartu behar, baizik eta soziokulturazko gizarte maila jakin bati dagokion neurriko hizkuntzaren menperatzea bezala.

Profesionari asko (intelektual, ingeniarri, merkatari, artista, politikari, etab) aurkitzen da maila honetako hizkuntz menperatzearen premian, hau da, bere mundu pertsonala eta profesionalaren berri jaiotzatiko bere hizkuntzaz ez bezalakoaz adierazi eta landu beharrean. Jatorrizko nazionaltasuna eskutatu gabe, modu egoki eta aise batez hitz egitea eta ulertzea beharrezko dute.

Hona hemen ezagupen maila hau lau trebetasunen arabera:

a) **Entzuteko ulermena.** Gizarte bizitzan osoki partaide izatera bultzatu behar du ikaslea maila honek, beraz jaiotzatiko hiztunak, minutuko 250 hitzezko abiaduraz ari drenean ulertzeko gai izan behar du ikasleak, «usadio on» baten edo modu standard baten arabera ari badira behintzat. Dialektozko desberdintasunak ulertzea geroagokoa eta denbora kontua izango da. Filmeak, treatroa ikusi, ongi ulertu eta berauen laburpenak egiteko gai izan behar du.

Honetarako 3.000 bat manifestapen linguistiko, zenbait ehunduka hitz internazional ezagun, zientzi eta intelektual bizitzari buruzkoak. Funtsetan, oinharrizko hiztegietan agertzen diren modismo hitz eta modismo gehienak ezagutzea nahitaezkoa da maila honetan.

Textuingurua ezagutuz gero, ia dena ongi ulertzeko gai izan behar du, nahiz eta jaiotzatiko hizkuntzatik erdarara batpatean pasatzen zaitasun gehiago aurkitu, arrazoi psikologikoengatik.

b) **Mintzamena.** Ikasleak aktiboki partaide izateko gai denez gero, normalki gizarteko hizkuntz gertakari guztietan parte har dezake inolako eragozpenik gabe. Edozer hizketagai inprobisatzeko eta azalpen bat emateko gauza izan behar du, entzulea neka-razi gabe.

Maila honetan, ikasleak erabat baztertu behar du buruzko itzulpena, zeren eta hizkuntz erreflexu multzo on baten jabe baita eta formari adi egon gabe, edukia ongi erabiltzeko gauza baita.

Maila honetako ikaslearen jariakortasuna ezin daiteke jaiotzatiko hiztunaren parekoa izan, azaleko berriketan izan ezik. Bestalde, kontutan hartu beharrekoa da, jaiotzatiko hiztunen artean ere hitz egiteko modu eta era desberdinak daudela. 2. Hizkuntzaren jaria-kortasuna neurtzerakoan, oso gogoan izan behar da ikasleak jaiotzatiko hizkuntzan duena.

c) **Irakurmeha.** Edozein textu ez-espezializatu bizkor irakurteko eta ulertzeko gai izan behar du ikasleak: egunkariak, nobelak, teatro lanak, irakurtzen duen horretaz etengabe bere buruari galdezka ibili gabe. Noizbehinka hitzen bat ez ulertzear ez du ezer esan nahi, jaiotzatiko hizkuntzaz irakurtzean ere gertatzen den zerbait baita hori. Hiztegiaz baliatzeak ez du nahitaez eskasia bat aditzera ematen.

d) **Idazmena.** Gutunak eta edozein textu ongi idazteko gai izan behar du ikasleak eta besterenak zuzentzeko ere bai, nahiz eta zehaztapen batzutarako hiztegiaz balia.

Honez gero, ikasleak bere jaiotzatiko hizkuntza erabiltzen duen bezalatsu maneiatu behar du 2.hizkuntza.

Honetarako ere beste 200 bat ordutako saioa behar dela aski frogaturik dago; ariketa eta idazketa ugari egin behar da eta ikaslearen iniziatiibari eremu zabala utzi behar zaio.

Funtsean maila honetako ikasleak «eroso» aurkitu behar du bere burua 2.hizkuntzan. Hizkuntzaz aparte, hizkuntza hori darabilen komunitatearen kultura eta interesak ongi ezagutu behar ditu horretarako. Dialektoei dagokienean, maila honetako ikasleak entzutezko ulermeha ohitura ukantzen behar luke aldakuntza eta intonazio modu desberdinetara.

Sakontze eta espezializapen maila

Oraindainokoan proposatu dugun ezagupen mailaz gainera egin daitekeen sakontzea hizkuntz irakasle, interpretataile eta itzultzai-leentzat izan daiteke, hots, hizkuntza hori eguneroko lanabez edo langaitzat erabiliko dutenentzat.

Sakontze hori bi norabideren arabera zuzen daiteke: hizkuntza horren didaktika kontutan harturik edo zientzia espezializaturen batek erabili behar duen hizkuntza berezia ezagutzeko asmoz.

Interpretatailearen eta textu itzultzaiaren kasua era ez dira berdinak: lehenak hizkuntza mintzatua zehatz-mehatz ezagutu behar du; bigarrenak, ordea, entzutezko ulermeha eta mintzamenearen aldean, irakurmeha eta idazmena ongi lantzea beharrezkoagoak ditu. Bakotzak duen helburuak erabat baldintzatzen ditu ikasprozesua eta edukiak.

AZKEN OHARRAK

Hizkuntz irakas-ikaskuntzaren prozesu honetan, ikasle nagusiaren lorkizunak hartu dira kontutan, marko eta erreferentzi orokor gisa. Haurraren izakera berezia, eta beronen hizkuntz lorpen proze-

suak dituen karakteristikak kontutan harturik, erraz ikus daiteke zenbait egokitze eta aldakuntza beharrezkoak direla.

– Eskolaurre eta O.H.O.ko 1. eta 2. urtetako haurrentzat, oro har, ez dute zentzurik **irakurmen-idazmen** sailetan proposatzen diren iriskizunek, azken urte aldera eta neurri mugatu batetan izan ezik.

– Nagusien munduan eta talde oso txikitán lortzen diren iriskizunetarako 250 ordu inguru beharrezkotzat jotzen badira ere, haurrak dituen imitamena eta plastizitatea gogoan izanik, epe laburrago baten buruan ere lor daitezke antzeko mailak, didaktika egokia erabiliz gero.

– Bestalde, haur txikienei buruz ari garenean batipat, ez dugu ahaztu behar, nagusiek ez bezalako interesguneak dituztenez gero, beraiei dagokien hiztegiak ere bestelako izaera duenik. Halaber, haurrak duen mundu mugatuago eta bereziarenagatik hizkuntz maila adierazkor bat lortzea ere errazago gertatuko da, irakasle eta didaktika egoki batez baliatuz gero.

– Beste behin, azpimarratu nahi dugu prozesuan zehar ebaluapenak sarri egiteak duen garrantzia. Bai eta irakasle bakoitzak tokian tokiko egoerara egokitzeko burutu behar duen ahalegin pertsonala ere, programak, orientabideak, eta bitarteko didaktikoak modu egoki batez baliarazteko eta beti ere haurren interes eta jarrera aldakorren arabera hizkuntz edukiak eskaintzeko (Ikus: «**Bi-lingüismo y Educación**» RENZO TITONE – Fontanella).

– Azkenik, hau ere gogorazi nahi dugu: bigarren hizkuntza bat ikastea prozesu akumulatziale bat da, baina ezagupenezko portae-rak eta trebetasun psikomotore berriak konbinatzen dituena. Pixkanaka, bigarren komunikapen sistema batez jabetzen da haurra eta hizkuntza berri hori «Kódigo» huts bat ez delakoa ulertzera heltzen da. Beste batzuekin harremanetan jarri, bere ideiak adierazi eta goragoko mailetan, kultur ezagupen berriak lortzeko tresna bezala erabiliko du aurrerapenak egin ahala. Funtsean, ikaslearena ez bezalako kultura eta esperientzi mundu batekin topo egiten eta beronen aberastasuna aurkitzen, baliozten eta estimatzen lagundu behar dio irakasleak. Beraz, eduki soil batzu ematea baino askozaz gehiago egin behar du irakasleak.

4. EUSKAL HERRIKO ESKOLETARAKO HIZKUNTZA IRAKAS-KUNTZAREN TIPOLOGIAK

Gorago eman dugun hizkuntz lorpenen prozesua, kontutan harturik, eta E.H.ak egun eskaintzen dituen egoera desberdinak, helburu berdin batetaranz doazen lau prozesu desberdindu proposatzen ditugu: A, B, C eta D tipo izenez izendatuak.

A

EREDUA

SARRERA { – 3 (5) urtetako haur erdaldunak
 – ingurune soziolinguistiko erdalduna

IKASKETA GUZTIAK ERDARAZ: EUSKARA 2.^o HIZKUNTZA

	ESKOLAURREA	Euskararekiko jolasbidezko hurbilpena
	EGB I	Euskara: Haserako maila
	EGB II	Euskara: Oinharritzko maila Euskal kultura: erdaraz
BUP – FP		A taldeak: Hobakuntzazko maila B taldeak: Oinharritzko maila

SARRERA { - Erdara nagusi den taldeetan, eta orobat inguru soziolinguistikoa eralduna denean, eta C Tipologia aplikatzeko modurik ez dagoenean.
 - 3 urtetako haur eraldunak (5 urtetako haur eraldunak)

ESKOLAUREA	<p>Erdara: nagusiki Euskara: kanta, jolas bidez familiartzea: haserako maila</p>
I EGB	<p>Ikasgaiak: Erdaraz eduki nagusiak: erderaz Euskara: Oinharritzko maila eduki praktikoak: euskaraz</p>
II EGB	<p>Ikasgaiak { gehienak: erdaraz: eduki nagusiak batzu: euskaraz: Euskal kultura: gai praktikoak Euskara: Hobakuntza maila – terminologia zientifikoa</p>
BUP -FP	<p>1 – Taldea: (C-D tipologietara aldeketa aukera)</p> <p>2 – Taldea: (C-D-ra aldaketa lortu ez dutenak, II EGB-ko plana jarraitu)</p>

C EREDUA

SARRERA { – 3 (2) urtetako haur erdaldunak
 – haur elebidunak, baina erdara nagusi dutenak

ESKOLAUURREA	<p>EUSKARA-ERDERA:</p> <ul style="list-style-type: none"> - erabilkuntza orekatua: erdiz-erdi gai guzietan - erdara nagusi - euskara: { Haserako maila Oinharritzko maila 												
EGB I	<p>(Irakuketa/idazketa euskaraz egiteko gai direnentzat lehenengo aldaketa «D» eredura)</p> <p>Irakurketa-Idazketa: Erdanaz</p> <table style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 30%;">Ikasgaiak:</td> <td style="width: 10%; text-align: center;">Erdaraz</td> <td rowspan="2" style="width: 10%; vertical-align: middle; text-align: center;">}</td> <td rowspan="2" style="width: 50%; vertical-align: middle; text-align: center;">erdiz-erdi</td> </tr> <tr> <td></td> <td style="text-align: center;">Euskaraz</td> </tr> </table> <p>3 gn. urtean Irakurketa-Idazketa: Eskaraz</p> <table style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 30%;">Helburua:</td> <td style="width: 10%; text-align: center;">Oinharritzko euskara</td> <td rowspan="2" style="width: 10%; vertical-align: middle; text-align: center;">}</td> <td rowspan="2" style="width: 50%; vertical-align: middle; text-align: center;">guztiekin menderatzea</td> </tr> <tr> <td></td> <td style="text-align: center;">Hobakuntzako euskara</td> </tr> </table>	Ikasgaiak:	Erdaraz	}	erdiz-erdi		Euskaraz	Helburua:	Oinharritzko euskara	}	guztiekin menderatzea		Hobakuntzako euskara
Ikasgaiak:	Erdaraz	}	erdiz-erdi										
	Euskaraz												
Helburua:	Oinharritzko euskara	}	guztiekin menderatzea										
	Hobakuntzako euskara												
EGB II	<p><input type="checkbox"/> ereduaren bezala</p> <p style="text-align: right;">(Bigarren Aldaketa)</p>												
B U P	<p><input type="checkbox"/> ereduaren bezala</p>												

D – EREDUA

SARRERA { – 3 urtetako haur euskaldunak
 – haur elebidun orekatuak

PROZESA	ESKOLAURREA	Euskara hutsez (euskalkitik Euskara Batu mintzatura mailaka)		
	EGB I	Irakurketa-Idazketa: Ikasgai guztiak: Erdara mintzatua:	Euskaraz Euskaraz { sarrera mailakatua irakurketa-idazketa	3gn. urtetik
	EGB II	Ikasgai guztiak: Euskal Kultura (Geografia, Historia, Literatura, Historia...) Erdara:	Euskaraz { Sakonketa Gramatikalizazioa/Literatura Terminologia zientifikoa	
	BUP – FP	Ikasgaiak:	{ euskaraz erdaraz	erdiz-erdi

5. HIZKUNTZ ORIENTABIDEEI BURUZKO OHAR OROKORRAK

- Hizkuntzaren arlora mugatzen da lana:
- Lanaren orokortasun eta probisionaltasun alderdiak.
- Hizkuntz glotodidaktikak dionez, elebidun irakaskuntzarako prestakuntza berezi bat nahitaezko da.

(Finocchiaro, Titone, Girard, C.A.C. Report, Lenneberg).

Honek funtsean hau eskatzen du: irakasleak bi hizkuntzak teoria eta praktika mailan ongi menderatzea, bigarren hizkuntzaren hazkunde egituratuaz oharturik egotea, azken teknika eta metodoen jabe izatea, eta sikolinguistikazko ezagupenen berri izatea.

Orain arteko hutsunea kontutan harturik, behar-beharrezko da instituzio mailan (Magisterio eskolan, Unibertsitate fakultateetan t.a.) prestakuntza maila sistematikoak eratzea eta orainarte lanean ari diren irakasleak ikastalde berezien bidez prestaketa egoki batez hornitzea.

- Bigarren hizkuntza irakasterakoan hizkuntza bien arteko interferentziak eragozpen handiak sortzen dituztelarik, ahal den neurriaren honako printzipio hau bete behar da: **Hizkuntza bat-irakasle bat** (Grammond-en printzipioa).

Beraz hizkuntza batetik besterako, itzulpenak eta konparaketak saihestu egin behar dira, eta beste bide batzu erabili behar lirateke hizkuntz-irakaskuntzan, hala nola: grafikoak, mimika, t.a.

- Hizkuntz sikologiak dioenaren arabera, lehen haurtzaroa da bigarren hizkuntza bat ikasteko pribilegiozko aldia (Luria, Richelle, Penfield, UNESCOren oharpenak t.a.).

Elebitasuna desarroilatzeko arorik egokiena haurren lehen urteetako da. Neurologoek diotenéz, zerebrua flexibilitate berezi baten jabe izaten da hizkuntzaren hazkundea gertatzen den adin honetan. Beraz, haurrek sentiberetasun berezia du hizkuntzaren hotsekiko, imitamen aparte eta eskuharki bi eta gehiago hizkuntzaz jabetzeko gai izaten da, batez ere horietako bakoitza pertsona desberdin eta esanguratsu bat lotzen ba zaio. Geroago, zaitasuna gero esta handiago izaten da bigarren hizkuntza batez jabetu ahal izateko, zeren eta hizkuntz-hotsak bereizteko ahalmena motelagotu egiten bait da eta lehen hizkuntzak gero esta interferentzia ugarriago ezartzen bait du bigarren hizkuntzaren baitan. Iritzi hauk, 1962gnean UNESCOk Hamburg-en ospatu zuen konferentzia batetan argiro azpimarkatu ziren eta honako gomendio garrantzitsu hauei buruz akordioa lortu zen:

1. Haurrek badu gaitasunik eta egokierarik eskolara sartu bezain laster bigarren hizkuntza bat ikasteko. Eskolaurrean ere has daiteke hizkuntz ikasketa hori.

2. Ikastrebetasunak ordena honetan lortzen dira:

- a) ulermena – mintzamena.
- b) irakurmena – idazmena.

Lehen mailetan irakaskuntzak erabat aho mailakoa izan behar du.

3. Denboraldi luzea eskaini behar zaio egunero bigarren hizkuntzari.

4. Haur txikiekiko irakaskuntzak prestakuntza berezia eskatzen du eta irakasleek jariakorki erabili behar dute bigarren hizkuntza.

– Bereziki azpimarratu nahi ditugu hizkuntz irakaskuntzak behar-beharrezko dituen bi baldintza:

- Ikasle taldeak ahalik eta homogenoena izateak duen garrantzia hizkuntza menperatzeari dagokionez.
- Kopuruari dagokionez, harreman pertsonal herstuak lortzeko modukoak izatea. Hau gebe edozein programaketa desbaliatutik geratzeko arriskua bait dauka.

– Egiazki elebitasun orekatu bat lordu nahi baldin bada, ez da aski irakaskuntz denborari dagokionez bi hizkuntzei tratamendu berdintsua, ematea, zeren eta euskararen normalizapen gabezia, komunikabideen eta ingurune soziologikoaren eragina kontutan hartuz gero, guztiz egoera desabentailatu batetan aurkitzen bait da euskara. Eta honela ahalegin berdinari erabat ondorio desorekakutuak bait dagozkie.

Goian aipatu ditugun tipologien helburuak eta programak kontutan harturik, denborari dagokionez minimo baztu ematera ausartu tuko ginateke:

- A Tipologian: Ordu bat gutxienez eguneko.
B » Ortu t'erdi gutxienez eguneko.
C » Egun erdia.
D » Era bat euskaraz.

– Irakurketa-idazketa teknikak eta bigarren hizkuntza.

Gure artean aski nagusitua dagoen praxiari bagagozkio, irakurketa-idazketa teknika goizegi sartza bigarren hizkuntza mintzatuaren kaltetan gertatu dela aitortu behar da. Lehen hizkuntzaren kasuan jokabide honek % 30 eta gehiagoko eskola frakasuaren kausa dela frogaturik baldin badago, eta badago, are larriagotzat jo genezake arazo hau bigarren hizkuntzaz teknika hauetan jabetzen saiatzen diren ikaslegoaren baitan.

Neuropsikologiak, pedagogiak, eta linguistika bezalako zientziek gaur egun frogatua dutenaren arabera, honako aitorpen hau egin daiteke:

1. Usadiozko metodoak gainditu beharra dago.
2. Maizegi dislexia izenpean ezkutatzen den arazoa ez da arazo klinikoa, baizik eta metodologikoa, organizatiboantolakuntzakoa, talde handiegiak izatetik eta mentalizapen gabeziatik sortzen direnak.
3. Eskolaurrea eta OHO-ko lehen aldia ez dira irakurtzen eta idazten ikasteko lekuak soilik, baizik eta sentitzen, pentsatzen, bitzitzen eta ahoz espresatzen ikasteko lekuak batik bat.

– Irakurketa idazketa eskuarki ama hizkuntzaz egin behar da. Baina bigarren hizkuntza gutxienezko espresibitate maila batetan

menperatzen denean, eta hizkuntza honen ortografia ahozko hizkuntzatik urrunegi ez dagoenean, onhargarria izan daiteke bigarren hizkuntzaz teknika hauk lortzea. Maila hau lortu den ala ez jakiteko behar-beharrezkoa da hizkuntz ebaluapen teknika egokien bitartez haurren heldutasun psikiko eta fisiekoaz gainera hizkuntzazkoak ere neurtea.

C Tipologiarri dagokionez ebaluapen hauetan oinharritu beharko da zeintzu haur irakurketa-idatzketa euskaraz egiteko prestaturik dauden erabakitzeko.

Adin kronologikoari dagokionez, haur bakoitzak bere erritmo berezia ba du ere, 6-7 bitarteko epea jotzen da gehiengoarentzat une egokiena, eta hauxe berau frogatzen dute zenbait herrialdetako gaurko usadioek:

Suedian 7 urterekin

Sobietar Batasunean 7 urterekin

Estatu Batuetan 6 urterekin

Alemanian 6-7 bitartean

Katalanen «Manifest sobre L'aprenentage de la lectura»-k dinez, 6-8 bitartean.

Heziera Ministergoaren azken orientabideetan ere bide horretatik jotzen da.

– Bigarren hizkuntzan gehienbat pertsona nagusien munduan landu da sistematikoki, eta sarritan haur txikiei hizkuntza irakasterrakoan, nagusientzako didaktikak erabili ohi dituen teknikaz eta erizpidez baliatzen gara. Haurrentzako glotodidaktikak funtsezko bi berezitasun ditu:

- Ludikotasuna: Jolas-giroa
- Globaltasuna: hizkuntza ekintza orokor batetan integraturik ematea.

Bi berezitasun hauk haurren egoera aldakorrera adaptatzeko ahalmena, hizkuntzaren erabiltze expresiboa, tekniken bizitasun eta ugaritasuna eta ugaritasuna eta abar, eskatzen diote irakasleari. Hala ere, beharrezko du irakaskuntza moeta honek programatze eta sistematikotasun zehatz bat espontaneismo alfer batetan ez erortzeko.

– Haurrarenagin, eskolan giroak eta programak bezainbateko garrantzia du inguruneak eta bereziki gurasoek bigarren hizkuntzarekiko duten jarrerak eta estimuak.

Elebidun eskola batek jarrera eta estimu hauk landu eta bultzatu egin behar ditu, hitzaldi, gaueskola tabarren bidez.

Bestalde gurasoen elebidun-eskolarekiko alderakotasuna lortzearen erabat beharrezkotzat jotzen da eskolako hizkuntz programen berri ematea, jakinaren gainean egon daitezen tokian-tokiko elebidun prozesuaz.

Hala ere, zenbait kasutan gertatu den interpretakuntza desegoki eta kaltegarri bat aipatu nahi da puntu honetan: hots, zenbait gurasok bere haurrek modu bortxakor batez bigarren hizkuntzaz jabetzera bultzatzean, berak eta trakets menperatzen duen hiz-

kuntza horretan hitz egin izan die, haurraren gain hizkuntz anomia nabarmen bat sortarariz hobebeharrez.

Beraz hauxe proposatzen dugu: Guraso bakoitzak nagusiki menperatzen duen hizkuntza soilik erabili dezala bere haurrekiko harremanetan, erregularki, eta ikasiz doan neurrian eta salbuespen gisa euskara. Hala ere, garbi gera bedi, gurasoengandiko estimulapena oso beharrezkoa duela haurrak. Horrela, praktikoki biziko bait du haurrak bigarren hizkuntzaren garrantzia, bere etxegiroak era-ginda.

6. EUSKARARI BURUZKO OHAR TEKNIKOAK

1.-Fonología

– Kate mintzatuaren ahozkereta eta irakurketa

Euskararen irakaskuntzan aski zabaldua dago ahozkereta onari buruzko iritzi oker bat: zenbait irakaslek hitzak banan-banan eta enfatikoki ebakitzea dela ongi ahozkatzea pentsatzen duen arren, jokabide honek kate mintzatuaren osotasuna etetzen du eta mitza-molde artifizial eta expresibitaterik gabekora ohitzen du ikaslea.

Gainera, intonazioa, erritmoa, azentuapena eta loturaetenak bezalako alderdiak itxuragabetzen ditu praxia honek. Horregatik ahozkereta on batek hizkuntz expresibilitatea gorde behar du lehen-dabizi, aipatu berri ditugun alderdi guztiok ongi integratuz.

Metodologi aldetik une analitiko batzu beharrezko ba dira ere, ahozkeria laxe bat eskatzen du, arau gisa, haurrekiko hizkuntz irakaskuntzak ohizko jokabide bezala, eta ez salbuespen bezala. Akats honek eten bat sotzen du hizkuntza biziaren eta irakaskuntzaren artean.

Arau honekin zerikusi herstura du irakasleak irakurketa on bat erabiltzeak lehen aipatu ditugun hizkuntzaren gertakari marginalak kontutan harturik.

– Euskarra eta gaztelera alderatzen baditugu, ba daude zen-bait berezitasun hotsei dagokienez

- a) Hots palatalizatuak: dd, tt.
- b) hots frikitibo-afrikatuak:

z – tz
s – ts
x – tx

- d) hitzen bukaeratan agertzen diren explosiboak:
–k eta –t

gizonek
ekarri dizkizut. t.a.

Errelatibozko eta zehar galderetako subordinatzaileak zaitasun bereziak sortzen ditu euskaraz -(duzun)-gaztelaniaz hain ohizkoak ez direlako edo era hontako hitz bukaerak.

- e) –ñ –n, –l
–ll

palatalizatuei buruz Euskaltzaindiak erabaki zehatzik hartu ez badu ere orain arte, zenbait eritzi tekniko entzun ondoren, ohar praktiko batzu egitera ausartzen gara:

- in grafemen ahozkera ñ bezala egitea iruditzen zaizu gomendagarriena.
 - il grafemen kasuan, erdararen eraginez zabalduz doan kontutan harturik, grafema bakoitzaren balio fonetikoa gordetzea gomendatzen da yeismoaren arriskua sumatzen den tokietan.
 - j grafema hau hiru eratara ahozkatzen dela kontutan harturik usadio egin bat ez dagoen tokietan, eta euskararen batasunak eskatzen duen joera kontutan harturik, i grafemaren balio ematea ikusten da arrazoizkoena.
- f) Kate mintzatuaren barruan sarri gertatu ohi dira kontsonante arteko txokeak eta aldakuntzak. Euskaltzaindiak gai honetan oraindik erabakirik hartu ez badu ere, zenbait eritzi tekniko entzun ondoren gomendagarri ageri da «ez» eta «bait» eri aditz formak darraizkienean ondoren jartzen diren adibideen erara ahozkatzea, bestela euskara mintzatua aldatuz joango baita euskara idatziaren eraginez:

<u>Idazkera</u>	<u>Ahozkeria</u>
ez badago	= (ezpadago)
ez dakit	= (eztakit)
ez gabiltza	= (ezkabiltza)
bait dator	= (baitator)
bait gara	= (baitkara)
ez nuke	= (enuke)
ez luke	= (eluke)
bait nekien	= (bainekien)
bait luke	= (bailuke)
ez zuen	= (etzuen)
bait zuen	= (batzuen)

Hala ere, **bait**-en -(t) hori ahozkeran ixiltzen dutenen joerari errespetagarri derizkiogu.

g) Euskal hitzen azentuari dagokionean, euskararen baitan joera desberdinak daudelarik, ezinezkoa deritzagu arau zehatzak emateari; hala ere, euskal sena duenak erraz nabarmentzen ditu erdal azentuaren eraginez euskaraz gertatzen diren interferentziak, hala nola:

Euskal Herria	-	Euskalherría
Ekonomia	-	Ekonomía
Danona	-	Danóna
Euskalduntzen	-	Euskaldúntzen
Saioka	-	Saióka

Beraz, puntu hau arreta bereziz zain dezala eskatzen diogu irakasleari.

MORFOSINTAXIA

Gaztelania eta euskararen artean, morfosintaxiazko zenbait interferentzia nabarmen gertatzen da, bi hizkuntza hauek duten izaera desberdinarengatik. Beraz, orientabide gisa eta inolako asmo agortzailerik gabe hauetako zenbait aipatuko ditugu:

1. DEKLINABIDEAN

- Kasu mugatu eta mugagabeen arteko bereizkuntzak:

etxeán	kaleán
etxeán	kaletán
etxeeta	kaleetán t.a.
- Bizigabeen eta bizidunen arteko bereizkuntza:

Elizara noa / Elizarengan	sinesten dut, t.a.
Eguzkitik dator / Eguzkiagandik	jasotzen dugu
- Ergatiboa eta nominatiboaren arteko bereizkuntzak:

Ni etorri naiz	
Nik ekarri dut	
Gizona dator	
Gizonak daki	
Gizonak datozi	
Gizonek dakite	t.a.
- Partitiboaren bereizkuntzak:

Ez dago ogirik	
Ogia ekarri dut	t.a.
- Soziatiboa eta instrumentalaren arteko bereizkuntzak:

Begiz ikusi dut	
Aitarekin joan naiz	
Makilarekin dabil	
Makilaz jo du	t.a.
- Posesiboa eta delimitatiboaren arteko bereizkuntzak:

Etxeko atea	
Etxearen atea,	t.a.
- Birdeklinazioaren zailtasunak:

Etxeko bidea / Etxerako bidea	
Mendiko bidea / Menditiko bidea,	t.a.
Aitarekiko harremanak, Aitarenganako errespetoa.	

– Nor – zer – zein-en arteko berezitasunak. Euskal Herriko zenbait tokitan nahaspila sortarazten du bereizketa honek:

Zein da, Nor da-ren ordez

Zein ordu, **Zer ordu**-ren ordez

Zer polita, **zein polita**-ren ordez

– **Nor – zer – zein** galderagileak ezezkako esaldietan:

Nor? Iñork ez! – **Ez** partikula beharrezkoa da esaldia eratzearakoan.

– Izenorde posesibo intentsiboen erabilkerak ere nahasketa eta zailtasun nabarmenak sortarazten ditu:

Zuk nire ama ondo ezagutzen duzu

Nik neure ama ondo ezagutzen dut

Zuk haren aita ikusi duzu

Hark bere aita ikusi du, t.a.

– Gaztelerak artikularik erabiltzen ez duen zenbait kasutan euskarak izena mugatu egiten du:

Bokatiboetan:

Gizona, zaude patxadanj t.a.

Aposizioetan:

Mikel, Bilboko alkateaj t.a.

Enunziapen eta tituluetan:

«Liburutegia»

«Txomin sagardotegia»

Oharra: Ez dedila inor...

– «Nola» eta «nolako» galderagileen arteko bereizketak ere zailtasunak sortzen ditu erdaldun ikaslearentzat, hitz bakar batez adierazten bait ditu bere ama hizkuntzaz (cómo) euskarazko bi kategoria ezberdin hauk.

«Nola» galderari adberbial bat dagokio:

«**Gaizki** etorri naiz»

«Nolako» galderari adjetibo kalifikatibo bat dagokio:

«Gaiztoa da».

– Deklinabide hitzari buruz dauden eztabaideak alde batera utzita, oharr garratzitsu bat egin baharra dago: Deklinatzen dena ez da hitza, sintagma osoa baizik:

Mutilari

Mutil handiari

Mutil handi bati

Mutil handi egin denari

2. ADITZA

Euskal aditzak hiru pronominal integra ditzake adizki bakar batetan. Beraz, zailtasun bereziak sor liezaizkioke eraldunari aditz honen jokaerak.

– Bi aditz laguntzaileak (Nor eta Nork subjektuak) bereizteak.

– Datiboa aditzaren barruan integratzeak.

Eman didazu

- Objetoaren pluraltasuna aditzaren barruan integratzeak:
Eman dizkidazu
- Aditz sintetikoak eta perifrástikoaren arteko bereizkuntzak:
Nabil / Ibiltzen naiz t.a.
- Eta modu guztietan euskal aditzaren hiru aspektuek sortzen dituzten zailtasunak gainditzeak:
 - Ikusten dut / Dakusat
 - Ikusiko dut
 - Ikusten nuen / Nekusan
 - Jakiten dut / Dakit
 - Jakingo dut
 - Jakiten nuen / Nekien

– **Ukan** eta **eduki** aditzen eremu semantikoen artean bortxaketa bat nabaritzen da irakaskuntzaren eraginez: **ukan**–ek **eduki**–ren alorra hartzen duelarik.

Bi alor semantiko hoiek zuzen bereiztea komeni da.

– **Zalantzazko aditzak:**

Ba da zenbait aditz errejimen bikoitza edo zalantzakorra duena:

Irten, lagundu, igo, begiratu,
ekin, deitu, deitu, saiatu, ahalegindu, t.a.

Honetako kasuetan, ahal denean, bereizketa semantiko bat egitea gomendatzeten da, edo eta herriaren baitan zabalduena den usadioaren joerari jarraitzea.

- «Elkar»–en erabilikera gaztelaniazko aditz erreziprokoak euskaraz «elkar» hitza osagarri zuzen bezala harturik eratzen da:
 - «Elkar ikusi dugu», «Elkar jo dugu» t.a., eta ez
 - «Elkar ikusi gara», «Elkar jo gara» t.a.

- Aditz erreflexiboetan euskarak «buru» osagarri bezala erabili ohi du, eta azken aldi honetan usadio jator hau galduz doa:
 - «Arriskuan ikusi dut neure burua»ren ordez «arriskuan ikusi naiz» t.a.

- Mugagabearekin aditza nola erabil: zenbait idazle eta irakaslek jarrera mugatuegi bat hartu du hitz mugagabearen bat subjektua edo osagarri denean aditzarekiko, eta singularreko forma soilik erabiltzea gomendatu izan du. Singularra nahiz plurala erabiltzea zilegi dela esan behar da. Gipuzkoan eta Bizkaian plurala erabiltearen aldeko joera askoz zabalagoa da.

3. EGITURAK

Euskal galdegaiaren teoriak berrikusketa baten premia ba du ere, eta Euskaltzaindiak besterik erabaki artean, bereziki zaindu behar da euskal sintaxiaren berezitasun garrantzizko hau. Iku hontaz Sebero Altuberen «Erderismos» eta Villasanteren «Sintaxis de la oración compuesta».

- Esakune koordinatuen mailan azpimarragarria da «ala» «edo» juntagailuek sortarazten duten nahasmena.

Aita **edo** osaba etorri da.

Ardoa **ala** ura nahi duzu?

Halaber,

baita ere
ezta ere

Kopulatiboek sortzen dutena ere.

– Distributiboa era «nahiz» «bai... bai» «zein... zein» partikula jatorren ordez joera redukzionista batek «edo» erabiltzera jotzen du gehiegitan.

– Erlatibozko eta zehar hizpidezko (zehar galderazko) esakunetan t.a. aditzari eransten zaion –n juntagailua ez erabiltzeko joera nabaria aurkitzen da euskara ikasten ari direnengan.

«Ze ordu **da** galdetu du»

«Ze ordu **den** galdetu du» –ren ordez.

Beste zenbait kasutan erlatiboa eskatzen duen –n.ren ordez –la modala erabiltzeko joera nabaritzen da:

«Txomin, esnea ekartzen duela, gaixorik dago»

«Txomin, esnea ekartzen duena, gaixorik dago»–ren ordez

– Subordinatu kausaletan ere erdal interferentzia larriak nabamentzen dira, euskarazko «**zergatik**» galderagilea **eta –lako**, bait ..., ... eta, kausal subordinagailuak erabili ordez, **zergatik eta ze** soilik erabiltzera jotzen bait da.

Gero eta sarriago ikusten den «zeren eta» klasikoa ontzat ematen da.

– Partizipialak: **nekatuta** eta antzeko adberbialak ikasleen ahotan adjetibo biurtzen dira eta deklinabidea hartzen dute, jokabide arbuiagarria bada ere.

«Nekatutak gaude» «Nekatuta gaude»–ren ordez.

Joera honi ere gogor egin behar zaio.

– Ezezkako esaldietan «ez» partikularen ondoren jarri behar da beti aditz laguntzailea; beraz erabat txarrestekoak dira «ez nahi dut», «ez jan dut» eta antzeko egiturak «**ez dut nahi**», «**ez dut jan**» egituren ordez.

– Zalantzazko subordinatuetan, hala nola «ez dakit etorri den» bezalako esaldien ordez «ez dakit badator» bezalako erdalkeriaik aski zabalduak daude, eta erabat arbuiagarriak dira!

– Konparatiboetan, kantitatezko eta kalitatezko partikulak beizeak zaitasun nabarmena sortzen du:

«Ni zu **bezain** indartsua naiz»

«Nik zuk **adina** indar daukat»

«Nik zuk **bezala** dakit euskarz»

«Nik zuk **bezalako** euskara erabiltzen dut» t.a.

4. HIZTEGIA

Euskal lexiko edo hiztegiari orokorki bagagozkie, sustrai bereko bi gaitz nabamentzen ditugu:

a) Artxisememen erabiltze ugariegia, hots: kontzeptu desberdinatarako hitz orokor bakarra:

aserleku, aulki	silla sillón sofá banco banqueta taburete, t.a.
bidea	carretera camino autovía, t.a.
batzarra, billera	reunión seminario congreso simposium, t.a.
oinetakoa	zapato bota botín zapatilla sandalia, t.a.
berokia	abrigó calefacción manta, t.a.
goxokia	caramelo pasta dulce tarta chupachus, t.a.

Gaitz honi erremedioia jartzeko hiztegia zehaztea eta aberastea gomendatzen diegu irakasleei.

b) Sinonimo hitz ugariégi kontzeptu bakarrerako.

cuchillo	haizto labana ganibeta kutxilloa
carta	eskutitza gutuna karta
periódico	egunkaria periodikoa egunerokoa kazeta hizparringia berripapera, t.a.

Holakoetan bereizketa semantikoa egitea gomendatzen dugu posible denean, eta bestelakoetan hitz egokiena eta erabiliena, eta batez ere beti berdina erabiltzea, aurreritzi puristarik gabe.

d) Euskal morfologian garrantzi handikoak dira hitz elkartuak, eta sarritan osagaien ordenak erabat aldatzen du esannahia:

esnebehia	- behiesnea
ardobotila	- botilardoa
zakupatata	- patatazakua, t.a.

Determinatzalea beti aurretik jarri behar da bi konposagaiak sustantiboak direnean. Berezitasun honek zaitasun aparta sortzen die euskara ikasten ari diren ardaldunei.

e) Eratorpen edo deribazioak aberastasun handia ematen dio euskarari. Baina atzizkiak logika ertsia baten arauera ulertu eta erabili nahi hizateak usadiozko hitzen semantika bortxatzen du. Horregatik euskal atzizkien esannahia usadiozko expresio ugariren bitartez landu behar da, laborategiko hitz eratorriak sortzeko arriskoari ihes eginez. Zera esan nahi da: atzizki berak erro eta testuin-guru desberdinatan, sarritan, esanahi aski desberdinak har ditza-keela:

luzera – ibilera
makilakada – platerkada
txeriki – estalki – biki – gaizki, t.a.

f) Hizkuntza guztiek bezala, euskarak ere modismo ugari du. Irakaskuntzaren hasieratik pixkanaka eta mailaka esamolde jatorhauk lantzen saiatu behar da, ikasleak indar eta espresibilitate gabeko euskara batez jabetu ez daitezen: interjekzioak, atsotitzak, tabu hitzak, klitseak, sarrera hitzak, ilatiboak eta antzekoak:

Arraioa
Arranapola
Arranetan
Kaiku–kirten
Tuntun
Txatxua
Txokila

«Nori berea da zuzenbidea»
«Etxean otso ta kanpoan uso»
«Geroa alferraren leloa»
«Etxeko lahatzak daki etxeko berri»

Adarra jo!
Lehengo lepotik burua!
eta antzekoak.

**EUSKARAREN PROGRAMAKUNTZA
HAUR ERDALDUNENTZAT**

**PROGRAMACION
DEL EUSKARA PARA NIÑOS
CASTELLANOPARLANTES**

3 URTE

3 AÑOS

LEHENENGO TRIMESTREA

LEHENENGO GAIA: GORPUTZA

SARRERA: Abestia «**Eragiozu**»
 Eragiozu eskutxo horri,
 eskutxo eder galanta horri
Lehen bateri gero besteri,
 eskutxo eder galanta horri.

MURAL DESKRIBAPENA

Gaia hau marrazki, filmina, «Lehen Irudiak Lehen Hitzak» fitxen edo muralen bitartez, azal daiteke.

GAIA GORPUTZA

Gorputzaren zatiak eta berauen mugimenduak eta funtzoak azalduko ditugu.

HIZTEGIA

Burua, bekokia, begia, sudurra, ahoa, aurpegia, ilea, belarria, lepoa, besoa, eskua, hatzamarra, izterra, zangoa, hanka, gorputza, handi, txiki.

MORFOSINTAXIA

NOR

NORK – ZER

	Agurtzane	
	Pello	
Ni	Nekane	naiz
	Mutila	
	Neska	
	Handia	

PRIMER TRIMESTRE

PRIMER TEMA: EL CUERPO

INTRODUCCION: La canción «**Eragiozu**»

DESCRIPCION DEL MURAL

El tema propuesto puede desarrollarse a través de dibujos, filminas, o a través de las fichas del libro «Lehen irudiak, Lehen hitzak».

Explicar las partes del cuerpo humano y los tipos de movimientos y funciones correspondientes.

VOCABULARIO

Cabeza, frente, ojo, nariz, boca, cara, pelo, oreja, cuello, brazo, mano, dedos, muslo, pierna, cuerpo, grande, pequeño.

MORFOSINTAXIS

Zu	Neska	
	Mutila	
	Aitor	
	Handia	

NORK – ZER

Zuk burua duzu		Nik burua dut	
	burua		burua
	bekokia		bekokia
	begia		begia
	sudurra		sudurra
	ahoa		ahoa
	aurpegia		aurpegia
	belarria		belarria
ZUK	lepoa	DUZU	NIK
	besoa		lepoa
	eskua		besoa
	hatzamarra		eskua
	izterra		hatzamarra
	zangoa		izterra
	hanka		zangoa
	gorputza		hanka
			gorputza

ONOMATOPEIKOA

Pit, pit, pit, ... trenaren txistua.

EGUNEROKO EXPRESIOAK

Ixo, ixilik (egon)
Altxa (zaitez) zaitezte
Etorri (zatoz) zatozte
Joan (zoaz) zoazte
Exerita (zutik) (etzanda)
Ilaran (Jari) (zaitez-zaitezte)
Euskuak garbi (itzazu-itzazue)
Komunera (nahi dut) (joan naiteke)
Jolasera
Bazkaltzera
Beste gelara

JOKOA

Korro txirinbolo,
zein polita den!
hanka bat, beste bat,
beso bat, beste bat,
begia, sudurra, ahoa,
burua, bira txirinbolo.

ONOMATOPEICO

Pit, pit, pit, el silbido del tren.

EXPRESIONES COTIDIANAS

Cállate, en silencio
Levántate, levantaos
Ven, venid
Vete, iros
Sentados, de pie, tumbados
(Poneos) en línea
Lávate (lavaos) las manos
Quiero ir al water – Puedo ir al wa-
ter
A jugar
A comer
A la otra clase

JUEGO

BIGARREN GAIA: IKASGELA

SARRERA: Abestia «Bolon bat eta
bolon bi»

Bolon bat eta bolon bi
Bolon puzura erori

SEGUNDO TEMA: LA SALA DE CLASE

INTRODUCCION: La canción
«Bolón bat
eta bolon bi»

Erori bazan erori
Ez da gerotzik ageri
pla, pla, pla.

MURAL DESKRIBAPENA

Ikastolan dauden tresnak azaldu, osagarri bezala landu Santillana lam. A.

GAIA IKASGELA

EXPRESIONES COTIDIANAS

JUEGO: El vaso a través del túnel

Cada grupo dispondrá de un vaso lleno de agua. Los miembros de cada grupo estarán alineados con las piernas abiertas.

El primero de la fila deberá pasar el vaso a través de sus piernas al que viene a continuación y se colocará el último en la fila. El segundo actuará de la misma forma con el tercero y así sucesivamente.

El primer grupo que termine el juego y con más agua en el vaso, es el ganador.

CANCION: Ametsa

CUENTO: «Hiru hartzak»

HIRUGARREN GAIA: EGUBERRIAK

SARRERA: Abestia

Olentzaro joan zaigu
 mendira lanera
 intentzioarekin ikatza egitera
 Aditu duenean Jesus jaio dela
 lasterka eterri da berri ematera
 Horra, horra gure Olentzaro
 pipa hortzian duela
 eserita dago
 kapoiak ere baditu arraultzatxoekin
 bihar merendatzeko
 botilla ardoakin.

MURAL DESKRIBAPENA

Gai honetarako egiten ditugun irudien bitartez azaldu.

HIZTEGIA

Aingeru, Aita San José, Amabirjina, ardi, artalde, artzain, aste, haurtxo, Belengo estalpe, elur, errege, goraldi, hibai, ilardi, izar, jaiotza, kandela, kanpai, Olentzaro, opari, oporteta, turroi, pipa, zubi.

MORFOSINTAXIA

NORK, NOR
 NORK, ZER
 NORK, NOR, NOLA

– Nork, Nor

Nik zaldia dut
 Nik zu zaldian eraman zaitut
 Zuk ni ekarri nauzu
 Zuek ni ikusi nauzue
 Hark ni ekarri nau
 Hark zu ikusi zaitu

– Nork, Zer

Nik ardia ekarri dizut
 Zuk oparia ekarri didazu
 Hark turroia ekarri dit
 Hark kandela ekarri dizu
 Hark jaiotza ipini dio
 Nik aingerua ipini diot

– Nork, Nor, Nola

Guk zu ongi ikusi zaitugu
 Zuk gu ederki ikusi gaituzu
 Nik zuek poliki eraman zaituztet

TERCER TEMA: LAS NAVIDADES

INTRODUCCION: Canción

DESCRIPCION DEL MURAL

Explicar y hablar sobre el tema en torno a dibujos originales.

VOCABULARIO

Angel, San José, la Virgen María, oveja, rebaño, pastor, burro, niño, portal de Belén, nieve, rey, musgo, río, luna, estrella, nacimiento, vela, campana, Olentzaro, ofrenda, vacaciones, turró, pipa, fuente.

MORFOSINTASIS

QUIEN (Agente), QUIEN
 QUIEN (Agente), QUE
 QUIEN (Agente), QUIEN, COMO

EGUNEROKO EXPRESIOAK

ONOMATOPEIKOA

Brist, brist! izarraren argia

JOKOA: Txanda lasterketa (relevos)

Lau bat taldek egin dezakete batera. Jakineko tokí batera joan behar da lasterka eta handik zerbait ekarri (zazpi bat edo) bainan jostalari baikoitza era ezberdinez ibiliko da, aldiako.

Igoa: arin-arin lasterka

2gna: atzeraka

3gna: oinak loturik dituela, jauzika

4gna: herrenka, ezkerraren gainean, eskuinaren gainean

5gna: begiak estalirik

EXPRESIONES COTIDIANAS

ONOMATOPEICO

¡Brist, brist! el fulgor de las estrellas

JUEGO: Relevos

Pueden participar unos cuatro grupos. Cada vez un miembro de cada grupo deberá ir a recoger algún objeto colocado en un punto determinado. Cada jugador deberá adoptar al correr posturas y modalidades diferentes.

El 1.º: corriendo normalmente

El 2.º: hacia atrás

El 3.º: con las piernas atadas, dando saltos

El 4.º: cojeando

El 5.º: con los ojos vendados

ABESTIA: «Trakatan trakatan»

Trakatan trakatan
hiru errege,
trakatan trakatan Belenerima
Belenen jaio da Jesús Haurtxoa
trakatan trakatan jaurestera
Meltxorren trakatan zaldi gorri
Gasparren trakatan zaldi beltza
trakatan trakatan Baltasar zaharra
trakatan trakatan zaldi txuri.

CANCION: «Trakatan trakatan»

IPUINA: «Olentzaro»

«Jesusen jaiotza»

CUENTO: Olentzaro»

BIGARREN TRIMESTREA

LEHENENGO GAIA: ETXEA

SARRERA: Abestia «Goazen bai etxera»

Goazen bai etxera
ondio jan eta lo egitera
bihar berriz etorriko gara
gaurko jokoak jarraitzen
Itxi dute giltzaz ikastola
gau on bat igaro dezala
ikastola utzi ta banoa
Agur t'erdil andereñoa
Ama daukat etxearen nere zai
Euri zaparrak jarri nau blai.

MURAL DESKRIBAPENA

Santillana, lam. 4, 8, 19.

GAIA

Etxea, hantzariak, familia, ekintzak.

HIZTEGIA

Alfonbra, aulki, apal, argazki, argi, arasa, ardo, arrain, harraska, haragi, bainu, bainugela, balkoi, baserri, botilla, butano, dutxa, egongela, edalontzi, erratz, eskilara, esponja, esne, fruitu, garbigela, garbitu, gatz, ganbara, gazta, gela, giltza, irudi, irratzi, isipilu, ikuili, jaboi, jan jantoki, katilu, komun, kristal, kurtina, goilare, lanpara, lapiko, leihoa, liburutegi, logela, mahai, maindire, manta, ohe, mailu, metro, pala, zerra.

MORFOSINTAXIA

NOREN, ZENBAT (Gu, Zuek, Haik)

SEGUNDO TRIMESTRE

PRIMER TEMA: LA CASA

INTRODUCCION: Canción «Goazen bai etxera»

DESCRIPCION DEL MURAL

Láminas 4, 8, 19 de Santillana.

La casa, los muebles, la familia, actos y relaciones.

VOCABULARIO

Alfombra, silla, balda, foto, luz, tocador, vino, pescado, lavadero, carne, bañera, cuarto de baño, balcón, casserío, botella, butano, ducha, sala de estar, vaso, escoba, escalera, esponja, leche, sala de limpieza, limpiar, sal, camarote, queso, cuarto, llave, imagen, radio, espejo, estable, jabón, comer, comedor, tazón, watter, cristal, cortina, cuchara, lámpara, olla, ventana, biblioteca, dormitorio, mesa, sábana, manta, cama, martillo, metro, sierra.

MORFOSINTAXIS

DE QUIEN, CUANTO (Nosotros, vosotros, ellos)

– Noren

Noren alfonbra da hori?
Alfonbra hori amarena da
Noren aulkia da hori?
Aulkia hori aitonarena da
Noren argazkia da hau?
Argazki hau zurea da

– Zenbat

Etxean zenbat logela dituzu?
Etxean bi logela ditut
Zenbat edalontzi dituzu?
Bost edalontzi ditut
Zenbat botila dituzu?
Sei botila ditut
Zenbat katilu dituzu?
Hainbat katilu ditut

– Gu, Zuek, Haik

Gu etxeан asko gara
Gu sei neba-arreba gara
Gu txikiak gara
Gu langileak gara

Zenbat neba-arreba zarete?
Zuek sei neba-arreba zarete
Zuek txikiak zarete
Zuek langileak zarete

Haik sei neba-arreba dira
Haik txikiak dira
Haik langileak dira

Guk baseria dugu
Guk ganbara dugu
Guk liburutegia dugu

Zuek baseria duzue
Zuek ganbara duzue
Zuek liburutegia duzue

Haik baseria dute
Haik ganbara dute
Haik borda dute
Haik liburutegia dute

ONOMATOPEIKOA

Kras, kras! sagarra jaten.

ONOMATOPEICO

Kras, kras! al comer una manzana.

JOKOA: Marrazki edo zanbakien jokoak

Ipin jostalariak lerro bitan elkarren aurrez-aurre, eta ipin berauen bizkarrean papel bat zenbaki edo marrazki batekin. Deia egitean, jostalari bakoitzak, berak nahi duen moduan, abiutu behar lagunen marrazkia edo zenbakia ikustera, baina bakoitzak daramana inori ikusten utzi gabe.

ABESTIA: «Haur bat zen»

Jaio zenean
denok zoraturik
galde egin genion amari
—zein izen ipiniko diogu haurrari?

Irune ala Iker
zalantzan ginен
mutila ala neska ote zen
—nola behar diogu iger?

Negar egin duenean
hibaiko kanpaiak entzun ditugu
a zer aboza!
—neska da, zein handia den gure poza

IPUINA: «Hamelingo txistularia»**JUEGO: El juego de las figuras o números**

Los jugadores se colocan en dos hileras enfrentados. A cada jugador se le coloca en el dorso una hoja con un dibujo o un número. Al iniciar el juego cada uno de los miembros de cada par enfrentado intentará por todos los medios posibles ver el número o dibujo de su compañero, pero de tal forma que el otro no pueda ver el suyo propio.

CANCION: «Haur bat zen»**BIGARREN GAIA: HIRIA****SARRERA: Abestia «Kurkumixa»**

Txiki, txiki, txiki, txakitzun
txiki, txiki, txiki, txakitzun
Txurigorri hileduн
kurkumix bat dugu lagun
beti txiki beti polit kurkur kurkukumix
ikastolako denak lagunak dituzu
Nora dijoaz nora, gelako haurtxoak?
Zelaira

MURAL DESKRIBAPENA

Santillana zenb. 1, 13, 17.

GAIA

Hiria-ibilgailuak-kalea

SEGUNDO TEMA: LA CIUDAD**INTRODUCCION: Canción «Kurkumixa»****DESCRIPCION DEL MURAL**

Láminas 1, 13, 17 de Santillana.

La ciudad, los medios de locomoción, la calle.

HIZTEGIA

Etxe, kale, bide, parke, erloju, denda, espaloi, aulkia, eliza, dorre, zuhaitz, garaje, lantoki, semaforo, zebrabide, kamioi, anbulantzia, moto, autobus, mikrobus, auto, iturri, gasolindegia, klinika, ospitalea, ikastola, zinetoki, kafetegi, tren, trenbidea, hegazkin.

MORFOSINTAXIA

(NIK DIDUT) ZUK DITUZU) (HARK DITU)
GU, GAUDE, ZAUDETE, DAUDE,
ZUEK, GOAZ, ZOAZTE, DOAZ,
HAIK GATOZ, ZATOZTE, DOAZ

HONEK, HORREK, HARK // HONI,
HORRI, HARI

VOCABULARIO

Casa, calle, camino, parque, reloj, tienda, espolón, silla, iglesia, torre, árbol, garaje, fábrica, semáforo, paso de cebra, camión, ambulancia, moto, autobús, microbús, automóvil, fuente, gasolina, clínica, hospital, ikastola, escuela, cinema, cafetería, tren, ferrocarril, avión.

MORFOSINTAXIS

NOSOTROS, ESTAMOS, ESTAIS,
VOSOTROS ESTAN
ELLOS VAMOS, VAIS, VAN
VENIMOS, VENIS,
VIENEN
ESTE, ESE, AQUEL// A ESTE, A ESE,
A AQUEL

Nik etxeak ikusi ditut
Nik kaleak ikusi ditut
Nik dendak ikusi ditut

Zuk zuhaitzak ikusi dituzu
Zuk garajeak ikusi dituzu
Zuk motoak ikusi dituzu

Hark hegazkinak ekarri ditu
Hark trenak ekarri ditu
Hark autoak ikusi ditu

–Gu, Zuek, Haik – Gaude, Zaudete, Daude

Gu bidean gaude
Gu espaloian gaude
Gu aulkian gaude

Zuek parkean zaudete
Zuek mikrobusean zaudete
Zuek lantokian zaudete

Haik zinetokian daude
Haik dendan daude
Haik kalean daude

–Gu, Zuek, Haik – Goaz, Zoazte, Doaz

Gu motoan gatoz – goaz
Gu etxera gatoz – goaz
Gu ikastolara gatoz – goaz

Zuek motoan zatozte – zoazte
Zuek trenean zatozte – zoazte
Zuek autobusean zatozte – zoazte

Haik etxetik datoaz – doaz
Haik iturritik datoaz – doaz
Haik dendatik datoaz – doaz

–Honek, Horrek, Hark – Honi, Horri, Hari

Honek moto honi gasolina bota dio
Honek zuhaitz honi hostoa kendu dio
Honek auto honi hautsa kendu dio

Horrek moto horri gasolina bota dio
Horrek zuhaitz horri hostoa kendu dio
Horrek auto horri hautsa kendu dio

Hark moto hari gasolina bota dio
Hark zuhaitz hari hostoa kendu dio
Hark auto hari hautsa kendu dio

ONOMATOPEIKOA

luuuuu! anbulantziaren ziztua.

ONOMATOPEICO

luuuuu! la sirena de la ambulancia.

EGUNEROKO EXPRESIOAK

JOKOA: Erdiko gauza har

Jar zaitezte biribilean, binaka bata bestearen aurrean. Aurrekoek han-kak zabalik. Nik ezkerrera edo eskui-nera esatean, atzeakoak biribilean (zirkuluaren) inguruan ibili behar dute, esandako aldera. Eta kidea da-goen tokira heltzean, honen hanka bitartetik igaro eta erdian dagoen gauza (harria, makila, zapia...) hartu behar dute.

EXPRESIONES COTIDIANAS

JUEGO: Cojer el objeto del centro

Poneos en círculo, de dos en dos, uno detrás de otro. Cuando yo diga «a la izquierda» o «a la derecha» los del círculo externo deberán de moverse hacia el lado indicado. Al llegar de nuevo a la altura del compañero correspondiente deberá de pasar a través de sus piernas y coger el objeto que está en el centro.

ABESTIA

Hau duk hau duk umorea
kontx-latzeko, kontxolatzeko euskaldun jendea,
Kalean gora, kalean behera
kalean gora zezena
kalean gora, kalean behera
kalean gora zezena.

CANCION

IPUINA: Txokolatezko etxea»

CUENTO: «Txokolatezko etxea»

HIRUGARREN GAIA: UDABERRIA

SARRERA: Abestia «Loretxo»

Loretxo, txuritxo
loretxo, gorritxo
arros kabelintxo
loretxin loretxo
loretxin loretxun
txiki eta usaidun
polita zara zu
loretxin nahi nuke
zurekin nahi nuke
lore lore loretxin
zurekin loretxin
nahi nuke bizi

MURAL DESKRIBAPENA

Santillana 14, 20.

GAIA

Udaberria. Animaliak eta landareak.

HIZTEGIA

Eguzki, ur, lore, hosto, landare, idibihotz, eguzki, lore, krabelina, arantza, kala, kamamila, larrosa, lorontzi, hosto, perretxiko, usain, zain, zuztar, tximeleta, kirkil, asto, behi, mando, tixerri, txakur, oilo, oilar, txita, ahate, txori, uso, eta abar.

MORFOSINTAXIA

Ni larrosa hartzera noa
Ni ura hartzera noa
Ni perretxikoak biltzera noa

Zu txakurra ikustera joan zara
Zu loreak hartzera joan zara
Zu larrosa hartzera joan zara

Gu neska mutilak gara
Gu txakurra ikustera joan gara
Gu lorea hartzera joan gara

-Honentzat, Horrentzat, Harentzat

Txitx honentzat garia ekarri dute
Krabelin honentzat lorontzia eman dute
Txori honentzat ura ekarri dute

Txito horrentzat garia ekarri zuten
Krabelin horrentzat lorontzia eman zuten
Txori horrentzat ura ekarri zuten

TERCER TEMA: LA PRIMAVERA

INTRODUCCION: Canción «Loretxo»

DESCRIPCION DEL MURAL

Láminas 14, 20 de Santillana.

La primavera. Los animales y las flores.

VOCABULARIO

Sol, agua, flor, hoja, planta, sol, flor, clavel, espino, calle, manzanilla, rosa, florero, hoja, seta, olor, esperar, raíz, mariposa, grillo, burro, vaca, mulo, cerdo, perro, gallina, gallo, pollito, pato, pájaro, paloma,...

MORFOSINTAXIS

Txito harentzat urontziak ekarri dituzte
Txori harentzat hostoak ekarri dituzte
Neska harentzat soinekoak ekarri dituzte

Lore honen hostoak politak dira
Txori honen hegoak luzeak dira
Asto honen hankak gogorrak dira

Lore horren hostoak politak dira
Txori horren hegoak luzeak dira
Asto horren hankak gogorrak dira

Lore haren hostoak politak dira
Txori haren hegoak luzeak dira
Asto haren hankak gogorrak dira

ONOMATOPEIKOA

Ttipi, ttapa! pausoak

JOKOA: Zoologikoa

Haur bakoitzak beste bat hartu behar du laguntzat. Bikote bakoitzak piztioihu berezi bat hautatzen du. Bikote bakoitzetik haur bat hartu eta gelaren bestaldera darama, han begiak estaltzeko.

Seinalea ematean, lehenengo tokian gelditu diren haurrek oihuka hasten dira, nor bere oihu. Begiak estalirik dituztenek beren laguna aurkitu behar dute, entzunez gidaturik.

Bikote bik oihu berdina baldin baleza, hala ere lehengo laguna topatu behar du.

Aurrenik elkartzen den bikotea irabazle.

ABESTIA: «Tximileta mendian»

Tximeleta mendian
lore baten gainean
Hegoak geldi zeuzkan
gaixoturik zegoan
Tximeleta bakarrak
tximeleta tristerik
nork nahi luke sendotu
tximeletatxo hori?

IPUINA: «Lehoia eta xagua» «Bremengo musikariak»

ONOMATOPEICO

¡Ttipi, ttapa! ruído de pasos

JUEGO: El zoológico

Cada participante escoge un compañero. Cada pareja elige un determinado grito de animal. Por otra parte un miembro de cada pareja se coloca en un rincón de la clase con los ojos tapados.

Al dar la señal, los otros miembros empiezan a emitir los gritos correspondientes. Los niños que van con los ojos vendados, deberán buscar a sus compañeros guiándose por los gritos.

Se puede dar el caso de que haya más de una pareja que haya escogido el mismo tipo de grito.

La primera pareja que logre encontrarse es la ganadora.

CANCION: «Tximeleta mendian»

CUENTO: «Lehoia eta xagua» «Bremengo musikariak»

HIRUGARREN TRIMESTREA**LEHENENGO GAIA: OGIBIDEAK****SARRERA:** «Tik, tiki, tak»

Atzo goizean
 ikusi nuen gizon bat mendian
 Hantxe zebilen
 indarrez-indar haizkolaria
 tik, tiki, tak
 tik, tiki, tak
 ari zen mendian
 tik, tiki, tak
 tik, tiki, tak
 haizkolaria
 tik, tiki, tak
 tik, tiki, tak

TERCER TRIMESTRE**PRIMER TEMA: LAS PROFESIONES****INTRODUCCION:** «Tik, tiki, tak»**MURAL DESKRIBAPENA**

Santillana zenb. 8, 18, 21, 23.

DESCRIPCION DEL MURAL

Láminas 8, 18, 21, 23 de Santillana.

GAIA: OGIBIDEAK

Andereño, txofer, gozosaltzaile, osagile, telefonista.

Profesora, chofer, vendedor de caramelos, médico, telefonista.

HIZTEGIA

Telefono, telegrama, kamioi, txofer, bolante, frenu, karga, gurpil, gozosaltzaile, karamelo, txupatxus, txikle, pika-pika, pastel, erregaliz, globo, osagile, xiringa, injekzio, horratz, aspirina, merkromina, pastilla, guata, alkohol, andereño, ipuin, abesti, joko, lan, oporrak, jai, laz-tandu, haserre, handi, mehe, lodi.

VOCABULARIO

Teléfono, telegrama, camión, chofer, volante, freno, carga, rueda, vendedor de caramelos, caramelo, chupachus, chiclé, pica-pica, pastel, regaliz, globo, médico, jeringa, inyección, aguja, aspirina, mercromina, pastilla, guata, alcohol, andereño, cuento, canción, juego, trabajo, vacación, fiesta, acariciar, enfado, grande, fino, grueso.

MORFOSINTAXIA

-Non, Hau

Non dago telefono hau..?
Non ipini du telefono hau..?
Non ikusi duzu telefono hau..?

-Nora, Hori

Nora doa telegrama hori ..?
Nora bidali duzu telegrama hori ..?
Nora ekarri du telegrama hori ..?

-Nondik, Hura

Nondik dator kamioi hura?
Nondik doa txofer hura?
Nondik ekarri du karga hura?

-Hauk

Bolante hauk ongi erabiltzen ditugu
Frenu hauk gaizki dabiltza
Gurpil hauk zulatuak daude

-Horik

Karamelu horik gozoak dira
Txikle horik mingotsak dira
Globo horik handiak dira

-Haik

Erregaliz haik beltzak eta gorriak dira
Pika-pika haik astiro jaten dira
Pastela haik ojaldrezkoak dira

-Honek

Sendagile honek injekzioa ipini du
Xiringa honek orratz lodia du
Merkromina honek botilla polita du

-Horrek

Andereño horrek ipuina daki
Andereño horiek ipuinak dakizkite

-Hark

Mutiko hark pipa erosi du
Mutiko haiak pipak erosi dituzte

EGUNEROKO EXPRESIOAK

JOKOA: Feria

Lagun bereko taldetan bana bitez
haurrek. Talde bakotza feriako sail

EXPRESIONES COTIDIANAS

JUEGO: La Feria

Los niños se dividen en grupos iguales. Cada grupo representará

bat da. «Harategia» «Arrandegia» «Txapeltegia» «Jantzitegia». Jokua hastean, begiraleak ferian egin ibilaldi bat eta erosle bat aurkitzen du. Gauza bat aipatzean, gauza hori dagokien taldekoek «Bai, hori» esan behar dute.

Ongi asmatzen ez duen taldeak puntuat galtzen du. Eta azkenean, puntu gehien galdu duenak «lan» edo «prenda» bat egin beharko du.

ABESTIA: «Egur bat egur bi»

Egur bat, egur bi
Haroztegian nabil
zerrak zirrin zirrin zar
mailuak tikitauka
Egur zatiak negarrez
Haroztegian nabil
iltze bat, iltze bi
josi ditut lau aulkia
lanean egin zazu
jolastu nahi baduzu
Hogeitabat, hogeitabi
haroztegian nabil.

IPUINA: «Esnesaltzailea» «Manu zapataria»

una sección de la feria: «Carnicería», «Pescadería», «Sombrerería», «Vestuario».

Al empezar el juego, el que dirige el mismo se da una vuelta por la feria y encuentra un comprador. Al nombrar un objeto la sección que lo posea dirá en voz alta: «Sí, lo tenemos». El grupo que se equivoque perderá un punto. Al final el grupo que haya perdido más puntos tendrá que realizar alguna acción o trabajo.

CANCION: «Egur bat egur bi»

CUENTO: «Esnesaltzailea» «Manu zapataria»

BIGARREN GAIA: DENDAK

SARRERA: Abestia «Amonaren ku txan»

Nere amonaren kutxan
behin galtza haundi batzuek
ikusi bide nituen

Nere aitonarenak ote
galdezu nion buruari
Bainan inork ez zion erantzun
nere galdera larriari
Aitonari begiratzean
ipurdi hestuak zituela
Ta nere buru haustetan
harenak ezin zitezkelia izan

MURAL DESKRIBAPENA

Santillana 14, 15.

SEGUNDO TEMA: LAS TIENDAS

INTRODUCCION: Canción «Amo- naren kutxan»

DESCRIPCION DEL MURAL

Santillana láminas 14, 15.

GAIA: DENDAK-JANTZIAK

HIZTEGIA

Denda, dendari, erosle, mahai, kaxa, papel, diru, ate, eskaparate, horma, tela, soineko, praka, gorbata, zapata, galtzerdi, sonbrero, jertse, beroki, gabardina, zira, botin, alkondara, bufanda, aterki.

MORFOSINTAXIA

-Hemen, Hor, Han

Hemen etxe azpian denda dago
 Hemen barruan dendariak daude
 Hemen aurrean erosleak daude
 Hor atzean mahaia dago
 Hor gainean kaxa dago
 Hor goian papera dago
 Hor erdian atea dago
 Han arasa gainean zapata dago
 Han zintzilikoa gabardina dago
 Han eskaparatean soinekoa dago

-Norekin

Norekin joan zara dendara?
 Norekin erosi duzu alkondara?
 Norekin egon da dendaria?

-Norentzat

Norentzat ekarri duzu bufanda?
 Norentzat eman dizu zapia?
 Norentzat eraman duzu gabardina?

-Nola

Nola hitz egin dizu dendariak?
 Nola ekarri duzu etxera?
 Nola bota duzu zapata?

-Nolakoa

Nolakoa da zure berokia?
 Nolako botinak ekarri dituzu?
 Nolako jertsea erosi duzu?

-Zergatik

Zergatik eman didazu bufanda?
 Zergatik eraman duzu zira?
 Zergatik utzi diozu aterkia?

Las tiendas, los vestidos.

VOCABULARIO

Tienda, tendero, comprador, caja, papel, dinero, puerta, escaparate, pared, tela, vestidura, pantalón, corbata, zapato, media, sombrero, jersey, abrigo, gabardina, impermeable, botín, camisa, bufanda, paraguas.

MORFOSINTAXIS

NIK	Soinekoa ekarri Eskutik heldu Burua garbitu	DIZUT
ZUK	Soinekoa ekarri Eskutik heldu Burua garbitu	DIDAZU

ONOMATOPEIKOA

Rast! oihala ebakiten.

EGUNEROKO EXPRESIOAK

JOKOA: Sagarra jatea

Airean ipini soka, alanbre edo makil luze bat zeharka. Handik zintzilik, jostalarientzat sagar bana, haurrak lurretik hozkatzeko alturan. Sagarra osorik jan behar dute, eskuak atzean dituztelarik, txortena utzi artean.

ABESTIA:

a, a, a,
ardo gorri naparra
edari ederra da
edan ahal baldin bada
a, a, a,
ardo gorri naparra

e, e, e,
ni ardoaren alde
edan ardura gabe
baldin bada debalde
e, e, e,
ni ardoaren alde

i, i, i,
ardoak gaitu bizi
noizik behin ondu busti
edan gabe ez utzi
i, i, i,
ardoak gaitu bizi

o, o, o,
hau biontzako dago
edan dezagun oro
zuk orain ta nik gero
o, o, o,
hau biontzako dago

u, u, u,
ardoak gaitu galdu
gehiegi edan dugu

ONOMATOPEICO

¡Rast! al rasgar una tela.

EXPRESIONES COTIDIANAS

JUEGO: Comiendo la manzana

Se tiende una cuerda o un alambre o un palo a determinada altura. Se pendan de ella una serie de manzanas de forma que los jugadores puedan acceder a ellas con la boca. Cada jugador deberá comer una manzana entera excepto el núcleo claro, con las manos atrás.

CANCION:

Iurra musutu dugu
u, u, u,
ardoak gaitu galdu

IPUINA: «Esne-saltzailea»

CUENTO: «Esne-saltzailea»

HIRUGARREN GAIA: ITSASOA

SARRERA: Abestia «*Oi ama*»

TERCER TEMA: EL MAR

INTRODUCCION: Canción «*Oi ama*»

Oi ama, amatxo
paper zuriz eidazu txalupa
 txalupa bat
 txalupa bi
 txalupa bost, hamaika
Oi nire txalupa, txalupa polita
handi eta ttiki
kaian daude erreska

Oi ama ...

Aurrean branka
Atzean txopa
ta erdi erdian
masta bat zorrotza

Oi ama ...

MURAL DESKRIBAPENA

Santillana, lam. 28.

DESCRIPCION DEL MURAL

Lámina n.º 28 de Santillana.

GAIA: ITSASOA ETA JOLASAK

El mar y los juegos.

HIZTEGIA

Ama, antxo, harkaitz, arrain, arran-nunzi arrandegi, arrantz, arrantzale, arraun, atun, makailo, batel, bixigu, estropada, egeri, jai, kaina-bera, karramarro, legatz, olatu, hondar, hondartz, sardina, sare, txalupa, txipiori.

VOCABULARIO

Madre, anchoa, roca, pez, barco de pesca, pescadería, pesca, pescador, remo, atún, bacalao, lancha pequeña, besugo, regata, nadar, muelle, caña, cangrejo, merluza, ola, arena, playa, sardina, red, lancha, chipirón.

MORFOSINTAXIA

Nik itsasora eraman zaitut
Nik itsasontzian ekarri zaitut
Nik txalupan erabili zaitut

MORFOSINTAXIS

ZUK	Itsasora eraman Itsasora ekarri Txalupan erabili	NAUZU
HARK	Itsasora eraman Itsasuntzian ekarri Txalupan erabili	NAU
HONEK	Legatza ipini Antxoak ekarri Bixigua erosи	DIT
NORK	Txalupari bultz egin Honi eskua eman Hari agur esan	DIO
GUK	Itsasora eraman Jolastera ekarri Arrantzara eraman	ZAITUGU
NIK	Arrandegira eraman Estropadara ekarri Hondartzara eraman	ZAITUZTET
ZUEK	Itsasora eraman Itsasora ekarri Txalupan erabili	NAUZUE
NIK	Sarea Txalupa Arraina	DAUKAT
HORREK	Legatza ipini Antxoak ekarri Bixigua erosи	DIZU
NIK	Txalupa eman Sardina erosи Karamarroa erakutsi	DIOT
ZUK	Itsasora eraman Jolastera ekarri Arrantzara eraman	GAITUZU

ONOMATOPEIKOA

EGUNEROKO EXPRESIOAK

JOKOA: Bolak zulo barrua

Egin zirkulu bat lurrean, erdian zulo bat duelarik. Zirkuluz kanpotik, de-nak batera, pilota bota behar dute

ONOMATOPEICO

EXPRESIONES COTIDIANAS

JUEGO: La bola al agujero

Trazar un círculo en el suelo con un agujero en el medio. Desde el extremo del círculo los jugadores, to-

zulora. Punto bana sartzen dutenei
(eduki pilota pila bat, edo zenbatu
zuloan sartzen dituztenak).

ABESTIA: «Bilintx balantx»

Bilintx-balantx
txalupa ur gainean
bilintx-balantx
itsas zabalean

Ostegun goiz batean
hondartzara joan gera
ikastola itxi eta
marrazki lanera

Hondartzan kata beltza
marraztu du Maitenak
bizirik dagoela
dirudi benetan.

IPUINA: «Uraxima arrantzalea»

dos a la vez lanzarán la pelota tra-
tando de meterla en el agujero. A
los que logren introducirla se les
asignará un punto.

CANCION: «Bilintx balantx»

CUENTO «Uraxima arrantzalea»

MORFOSINTAXIAZKO ERANSKINA

ANEXO SOBRE MORFOSINTAXIS

MORFOSINTAXIAZKO ERANSKINA

OHARRA: Programakuntzan zehar eskaintzen diren egitura minimoez gainera, irakasleak bere irizpidearen arabera, berriak sarditzan eta ikuspegi orokorrako bat izan dezan, gehigarri gisa ematen dugu egitura zerranda hau. Argi gera bedi ez duela asmo agortzailerik eta orientapen soila dela.

- Zer da hau?
Nor da hau?

Zertzu dira hauk? (hoik, haik)
Nortzu dira hauk? (hoik, haik)

- Hau Jon al da?
Neska hau Miren al da?
Mahaia haltzaria al da?

Jon hura da
Miren ez da neska hau
Larroso bat ez da zuhaitza

- Nola duzu izena? Zer izen duxu?
Nola du izena hark? Zer izen du har?
Nola dute izena haik? Zer izen dute haik?

Miren dut izena
Aulkia du izena
Sardina dute izena

ANEXO SOBRE MORFOSINTAXIS

NOTA: Además de las estructuras mínimas que se ofrecen en el programa anterior y con el objeto de que el profesor pueda, siguiendo un criterio personal, introducir otras nuevas y disponer de una visión más amplia sobre las estructuras, damos a continuación una lista más extensa a modo de orientación general y sin ánimo de ser exhaustivos.

- ¿Qué es esto?
¿Quién es este?
- ¿Qué cosas son éstas? (ésas, aquéllas)
¿Quiénes son éstos? (esos, aquellos)
- ¿Es este Juan?
¿Esta chica es Miren?
¿La mesa es un mueble?
- Aquel es Jon
Esta chica no es Miren
Una rosa no es un árbol
- - ¿Cómo te llamas? Qué nombre tienes?
¿Cómo se llama aquél?
¿Cómo se llaman aquellos?
- Me llamo Miren
Se llama mesa
Se llaman sardinas

Mikel al duzu izena? Nork du izena Mikel?	¿Te llamas Mikel? ¿Quién se llama Mikel?		
Nik es dut Mikel izena Nik ez dut izena Mikel	Yo no me llamo Mikel		
- Norena da liburua Norena da pilota hau?	- ¿De quien es el libro? ¿De quien es esta pelota?		
Liburua Iñakirena da Pilota dau Jonena da	El libro es de Iñaki Esta pelota es de Juan		
Honena, horrena, harena al da liburu hau?	¿Es de éste (de ése, de aquél) este libro?		
Ez, liburu hau ez da	Honena	éste	
	Horrena	ése	
	Harena	aquél	
Honenak, horrenak, harenak al dira liburu hau, hoik, haik?	Estos (esos, aquellos) libros son de éste (de ése, de aquél)		
Liburu hau	nirea zurea berea gurea zuen haiena	Este libro es	mío tuyo suyo nuestro vuestro de ellos
Liburu hau al da zurea? Zurea al da liburu hau?	¿Es este libro el tuyo? ¿Este libro es tuyo?		
- Zerezko da mahai hau? Zerezkoak dira botila hau? Kris-talekoak	- De qué está hecha esta mesa? De madera. ¿De qué están hechas estas botellas? De cristal.		
Zerezko al da mahai hau? Kristalekoak al dira botila hau?	¿Es de madera esta mesa? ¿Son de cristal estas botellas?		
- Nolako da burdina? Astuna da burdina Nolakoak dira gereziak? Gozoak dira gereziak	¿Cómo es el hierro? El hierro es pesado. ¿Cómo son las guindas? Las guindas son dulces.		
Oso gozoak Nahiko gozoak Gozo samarrak	Muy dulces Suficientemente dulces Bastante dulces		
Jon, Mikel bezain handia al da? Mikel ez da Jon bezain handia Mikel, Jon baino handiago da.	¿Jon es tan grande como Mikel? Mikel no es tan grande como Jon Mikel es mayor que Jon		
- Nola dago Jon? Ongi Gaizki Zutik	- ¿Cómo está Jon? Bien Mal De pie		

- | | |
|---|--|
| <p>Jon, Mikel bezain bizkor dabil
 Mikel ez dabil Jon bezain bizkor
 Mikel, Iñaki baino bizkorrago dabil
 Iker dabil bizkorren</p> <p>– Zopa oso beroa dago
 Harrizko etxea hau da
 Jenen liburua dago hemen
 Mikel, nire laguna, dabil hemen</p> <p>– Zer dago mahaian?
 " " barruan?
 " " gainean?
 " " aurrean?
 " " atzean?
 " " alboan?
 " " azpian?</p> <p>Non dago liburua?
 Non daude liburuak?
 Ba al dago libururik mahaian?
 Ez dago libururik mahaian</p> <p>– Nor dago gelan?
 Miren dago gelan.</p> <p>Miren gelan al dago?
 Ez, Miren ez dago gelan
 Mikel eta Miren ez daude gelan</p> <p>– Zertan ari da iheltsaria?
 Etxea egiten ari da</p> <p>Nork egin du etxea?
 Iheltsariak egin du etxea</p> <p>– Nor ikusten du Jonek?
 Nor agurtzen du Miren?
 Nor ezagutzen du Miren?
 Nor deitzen du Miren?
 Nor aurkitzen du Miren?</p> <p>Iñor ezagutzen al duzu?
 Iñor agurtzen al duzu?</p> <p>Ez du iñor ezagutzen
 Ez du iñor agurtzen
 Ez du iñor ikusten
 Ez du iñor deitzen
 Ez du iñor aurkitzen</p> <p>Guk Jon agurtzen dugu
 Zuek Miren ezagutzen duzue
 Haiek irakaslea ikusten dute</p> | <p>Jon, anda tan rápido como Mikel.
 Mikel no anda tan rápido como Jon.
 Mikel anda más rápido que Iñaki.
 Iker es el más rápido.</p> <p>– La sopa está muy caliente
 La casa de piedras es ésta
 El libro de Jon está aquí
 Mikel, mi amigo, anda aquí</p> <p>– ¿Qué hay en la mesa?
 " " en el interior?
 " " encima?
 " " delante?
 " " detrás?
 " " al lado?
 " " debajo?</p> <p>¿Dónde está el libro?
 ¿Dónde están los libros?
 ¿Hay algún libro en la mesa?
 ¿No hay ningún libro en la mesa?</p> <p>– ¿Quién está en el cuarto?
 Miren está en el cuarto.</p> <p>¿Miren está en el cuarto?
 No, Miren no está en el cuarto
 Mikel y Miren no están en el cuarto.</p> <p>– ¿Qué está haciendo el albañil?
 El albañil está haciendo una casa.</p> <p>¿Quién ha hecho la casa?
 El albañil ha hecho la casa.</p> <p>– ¿A quién ve Jon?
 ¿A quién le saluda Miren?
 ¿A quién le conoce Miren?
 ¿A quién le llama Miren?
 ¿A quién le encuentra Miren?</p> <p>¿Conoces a alguien?
 ¿Saludas a alguien?</p> <p>No conoce a nadie
 No saluda a nadie
 No ve a nadie
 No llama a nadie
 No encuentra a nadie</p> <p>Nosotros le saludamos a Jon
 Vosotros le conocéis a Miren
 Ellos le ven al profesor</p> |
|---|--|

Guk irakaslea ikusten al dugu?
Zuek irakaslea ikusten al duzue?
Haiet irakaslea ikusten al dute?

Ez dugu ezagutzen Jon
Ez duzue agurtzen Miren
Ez dute ikusten irakaslea

Nor ikusten du Jonek?
Lagunak ikusten ditu Jonek

- Zenbat kromo dauzka Jonek?
Zenbat haurrek dituzte kromoak?

Jonek Mikelek adina (deste) kromo dauzka
Iñaki Jonek baino kromo gutxiago dauzka
Iñaki ez dauzka Mikelek adina (deste) kromo
Ikerrek dauzka kromo gehien

- Jonek gola sartu du
Jonek baloia jo eta gola sartu du
Jonek baloia jo du eta gola sartu du

- Mikelek Miren ikusi du
Jonek ere Miren ikusi du
Mikelek eta Jonek Miren ikusi dute
Mikelek Miren ikusi du, baina Jonek ez

- Zer nahi duzu, gazta ala txokolatea?
Jonek arraultzeak eta azenarioak erosi ditu
Jonek ez du ez arraultzerik ez azenarioik erosi

- Jonek lapitza eman dio Miren
Joni lapitza galdu zaio

Non? etzean Hemen
Hor Han

Nora? Kalera Hona
Horra Hara

Nondik? Kaletik Hemendik
Hortik Handik

¿Vemos nosotros al profesor?
¿Véis vosotros al profesor?
¿Ven ellos al profesor?

No conocemos a Jon
No saludamos a Miren
No ven al profesor

¿A quién ve Jon?
Jon ve a los amigos

- ¿Cuántos cromos tiene Jon?
¿Cuántos niños tienen cromos?

Jon tiene tantos cromos como Mikel.
Iñaki tiene menos cromos que Jon
Iñaki no tiene tantos cromos como Mikel.
Iker es el que más cromos tiene.

- Jon ha metido un gol
Jon ha chutado y metido el gol

- Mikel ha visto a Miren.
Jon también ha visto a Miren.
Mikel y Jon han visto a Miren.
Mikel ha visto a Miren, pero no Jon.

- ¿Qué quieres, queso o chocolate?
Jon ha comprado huevos y zanahorias.
Jon no ha comprado ni huevos ni zanahorias.

- Jon le ha dado el lápiz a Miren
A Jon se le ha perdido el lápiz

¿Dónde? en casa Aquí
Ahí Allá

¿A dónde? A la calle Aquí
Ahí Allá

¿De dónde? De la calle De aquí
De ahí De allí

Norantz?	Kalerantz	Honantz Horrantz Harantz	¿Hacia dónde? Hacia la calle Hacia aquí Hacia ahí Hacia allí
Noraino?	Kaleraino	Honaino Horraino Haraino	Hasta dónde? Hasta la calle Hasta aquí Hasta ahí Hasta allí
Norengan?	Aitarengan		¿En quién? En el padre
Norengana?	Aitarengana		¿A dónde? A donde el padre
Norenandik?	Aitarengandik		¿De quién? Del padre
Norenantz?	Aitarenganantz		¿Hacia quién? Hacia el padre
Norenganaino?	Aitarenganaino		¿Hasta dónde? Hasta el padre
– Noiz, ze ordutan?		– ¿Cuándo, a qué hora?	
gaur		Hoy	
bihar		Mañana	
etzi		Pasado mañana	
hamabietan		A las doce	
ordubatean		A la una	
hiru t'erdietan		A las tres y media	
– Nola idazten duzu? Bizkor, astiro, ongi, gaizki		– ¿Cómo escribes? Rápido, lento, bien, mal.	
– Norekin? Aitarekin batera dabil?		– ¿Con quién? ¿Anda juntamente con el padre?	
Nortaz/zertaz? Aitzaz hitzegin du. Makilaz jo du begian		– ¿Con quién/con qué? Ha hablado con el padre. Le ha pegado con un palo en el ojo.	
– Zergatik nahi duzu hori? Polita delako Polita da eta Polita bait da		– ¿Por qué quieres eso? Porque es bonito.	
– Zertarako da hori? Idazteko, jateko, jolasteko, gauzak gordetzeko, eskuak garbitzeko.		– ¿Para qué es eso? Para escribir, para comer, para jugar, para guardar las cosas, para limpiar las manos.	
– Hor dagoen mutikoa nere anaia da. Eskuan daukazun liburua polita da. Hor datorrena andereñoa da		El chico que está ahí es mi hermano. El libro que tienes en la mano es bonito. La que viene ahí es la profesora.	

**EUSKARAREN PROGRAMAKUNTZA
3, 4 eta 5 URTETAKO HAUR
EUSKALDUNENTZA**

**PROGRAMACION DEL EUSKARA
PARA LOS NIÑOS VASCOPARLANTES
DE 3, 4 y 5 AÑOS**

HIZKUNTZA ETA ESKOLAURREA

I. ULERMENA

1. Interesguneetako hiztegia osatzen duten hitz bakoitzaren esan-nahia ulertu eta hitz hoiek zuzen era-biltzen ikasi.

2. Esaldi errazez agintzen zaiona bete arazi.

Garai bakoitzean lantzen den gaiarekin zer ikusia dutenak, edo ikastolako egunero ihardunarekin lotura duten aginduak izan behar lukete.

Ariketak:

–gaia lantzko erabiltzen diren filminetan, muraletan eta bestelakoetan ikusten dituzten gauzen izenak esan.

–Hoietako gauza bakoitza non egoten den, zertarako erabiltzen den eta nork erabiltzen duen esan: armairu barruan, mahai gainean edo azpian, eltzetxo barruan, ohearen alboan, t.a.

–Gauza bakoitza nolakoa den adierazi: handia ala txikia, gozoa ala mingotsa, biguna ala gogorra, t.a.

–Gauza bakoitzarekin zer gerta daitetik adierazi: basoa erortzen bada puskatu, euria ari duenean busti, hoztuez gero gaixotu, labanaz ogia ebaki, guraizez papera ebaki edo moztu, t.a.

–Gelako zenbait gauza bakoitza bere lekuari jarri

–Gelako zenbait gauza erabilarazi

–Alboko gelako andereñoarengana joan eta enkarguren bat egin

–Era berean, sikomotrizitateko zenbait ariketa eginerazi:

- Albokoari eskua eman
- Gorriz margotutako eskua jaso, edo urdinez margotutakoa

- Gauza bat poliki-poliki botatzean, beste bat ahal den indar handienaz!
- aurreran nahiz atzean daukanari pilota pasa!
- t.a.

3. Egindakoaren berri ematen ikasi, nahiz eta esaldi errazak erabili horatarako

–igandean nondik ibili den eta zer ikusi duen.

–ikastolan aurreko egunean zer egin zuten eta nondik ibili ziren (mendian edo).

–gaixotutakoan zer gertatu zaion, ea osagilearengana joan zen, ala bera etxera etorri zitzaison.

–t.a.

4. Entzundako zenbait kontakizunen guna esaldi errazez emateko gauza izan

–ipuin erraz baten jokabide-katea emateko gauza izan

–irudi batetan ikusten duen gertakizunaren berri eman

–abesti baten gaia hitzez emateko gauza izan

–lau-bost irudiz eskaintzen zaion gertakizuna hitzez emateko gauza izan

–t.a.

II. FONOLOGIA

1. Adineko hizkeran erabiltzen diren hotsak bereizten hasi behar litzateke.

–x = xxxxxxx! ixilik egoteko!

–m = mmmmmu! behiak egiten du!

–z = zzzzz! eulia edo erlea aidean!

–tr = trinnnn! tinbrea!

–a = a a a a a a = astoa aha-rantzaka

–t.a.

–egokiak dira hontaroko zenbait abesti onomatopeiko ere:

e.b.: aldapeko sagarraren...
txiruliruli-txiruliruli...

2. Hots berezi batzutan oinarritu-tako hitzen esannahi ezberdinaz konturatu behar du haurrak:

hotsa / hotza
pala / pala
eulia / euria
tirua / dirua
ardoa / artoa
poztu / puztu
etsi / etzi
atso / atzo
bero / gero
hasi / hazi
gela / jela
zira / jira
arbia / ardia
t.a.

3. Berdin hasi eta ezberdin bukatzen diren hitzak bilaraziz

-hitz horietako bakoitzari dagokion irudia eskaini, eta esaten zaion hitzari dagokiona aukeratuaz

-erantzunean horrelako hitzak era-bileraziko dizkion galderak eginaz.

-ipuineta eta kontakizuneta horrelako hitzak erabiliaz eta erabil era-ziaz.

-t.a.

-su - a
su - gea
su - kaldea t.a.

-zu - loa
zu - bia
zu - ria
zu - zena t.a.

-go - goa
go - zoa
go - rria
go - saria t.a.

-kami - ona
kami - oa
kami - seta t.a.

-ar - gia
ar - bia
ar - dia
ar - toa
ar - doa t.a.

-era berean, ezberdin hasi eta berdin bukatzen direnak bilatu araziaz.

-la - guna
e - guna
bi - guna t.a.

-hau - zoa
zo - zoa
go - zoa t.a.

-zu - zena
ze - zena
gi - zena
i - zena t.a.

-ba - la
pa - la
ka - la
je - la
ge - la t.a

-ho - tza
ga - tza
hi - tza
la - tza

-era berean, hots bat ez beste guztiak berdinak dituztenak bilaraziz.

-eu - l - ia
eu - r - ia t.a.

-ar - g - ía
ar - b - ía
ar - d - ia t.a.

-ha - b - i
ha - s - i
ha - z - i t.a.

-ik - u - si
ik - a - si t.a.

4. Hitzak beren osagaien arabera eten: silabaz-silaba lehenik, fone-maz-fonema geroago.

-a - ma
ge - la
pi - lo - ta
pa - la
zu - ze - na
la - gu - na
bi - gu - na t.a.

-zenbait abestiz ere balia daiteke hortarako:

al-da-pe-ko sa-ga-rra-ren
a-da-rra-ren pun-tan
pun-ta-ren pun-tan t.a.

-Geroago:

a - m - a
a - n - a - i - a
p - a - l - a
u - m - e - a
ha - u - rr - a t.a.

honelangsukoa ariketak egiteko, jakina, hizkera garbia erabili behar du andereñoak, eta hitz bakoitzaren hots guztiak luzatuz egin behar da ariketa hauek lantzea.

5. Hitz luzeak laburretatik bereiztea
lortu behar du haurrak.

-lo - telebista
bai - lapitza
ez - tximeleta
gaur - bainugela
sua - txintxarria
ura - jolastokia
pipa - Olentzaro t.a.

Laburrena luzenetik bereiztea litza-teke lehen pausoa, ezberdintasun hori gero eta txikiagoa izatera joaz.

6. Hots hauk ardura bereziz landu behar lirateke:

d - t
b - p
g - k - j
s - z - x
ts - tz - tx

-Fonema horietan bakarrik bereizten diren hitzak kontrajarriz:

dirua - tirua
artoa - ardoa
pala - bala - lapa
bizarra - pizarra
boza - poza
hasi - hazi
zoro - soro
atzo - atso
gela - jela
zerra - xerra t.a.

DEKLINABIDEA

1. Nominatibo/ergatiboaren erabil-kerak ondo finkaturik geratu behar du eskolaurrean
«**Ni** etorri naiz»
«**Nik** ekarri dut»

-entzundako esaldiak errepikaraziz

-ikasitako abestien gaiei buruz egindako galderei erantzunez

-entzundako ipuinen gaiei buruz egindako galderei erantzun eraziaz. Erantzunak hitz bat bakarrez osatutakoak izan daitezke:

Nor joan da Txanogorritxoren-gana?

-Otsoa!

Nork ekarri dio bazkaria amonari?

-Txanogorritxok!

t.a.

2. Destinatiboa
(Datiboaren ordez ere erabili beharko da lehen epe batetan)
«Amarentzat ekarri ditut enkarguak»

-kasu hau erabilaraziko dioten galderak eginaz behartu daiteke haurra berori erabiltzera.

-Gela barruan erabiliko diren kontakizunetan eta ipuinnetan kasu hau maiz-maiz erabiliz eta gero haurrei berdina kontarazia.

3. Posesiboa	-aurrekoak bezala eta galde - erantzunen bidez.
«Aitaren autoa da hori»	
4. Instrumentala	-aurrekoak bezala
Arreta handiz landu beharrekoa, gazteleraren interferentzia handia nabarmenzen bait da kasu honen erabilkeran. «Zerraz ebakitzen da egurra»	-galdera ugari «Zertaz?» erabiliz
5. Soziatiboa	-aurrekoak bezala
Instrumentaletik zuzen bereizi beharrekoa «Aitarekin ibili naiz» «Amarekin eterri naiz»	
6. Inesiboa	-aurrekoak bezala «Non izan zara?» «Non utzi duzu?» «Non jaso zaitu?»
«Ikastolan galdu dut zorroa» «Aitagana dago baimena ematea» Era hau OHO'ko mailatarako utz daiteke)	
7. Delimitatiboa	-aurrekoak bezala «Nongo sukaldean?»
«Etxeko sukaldean erori da haurra»	
8. Ablatiboa	-aurrekoak bezala «Nora zoaz?»
«Etxetik nator» «Amarengandik ateraino», era hau OHO'ko mailatarako utz daiteke)	
10. Mugazko alatiboa	-aurrekoak bezala «Noraino iritsi nahi duzu?»
«Etxeraino joan naiz» (Aitarenganano: era hau ere OHO'ko mailatarako utz daiteke)	
11. Datiboa: Kasu hau erabiltzeak aditzaren aldaketa bat eskatzen du, NORI era erabilerazen bait du. Dena dela, 5 urtetarako sarri erabili behar luke haurrak. (Iku aditzaren erabiliera).	-aurrekoak bezala «Nori eman diozu goxokia?»
12. Joerazko alatiboa	-aurrekoak bezala «Norantz joan nahi duzu?»
«Etxerantz noa» (Gutxi erabiltzen denez, OHO-ko mailetarako utz daiteke).	
13. OHARRA: deklinabidearen kasu hauk era mugatu eta mugagabeen erabili behar dira	

ADITZA

Halako berezitasun aparta du euskal aditzak: era bakoitzak nor subjektu den nor/zer objektu den eta norikoa ere adieraz bait lezake.

Aberastasun honek, ordea, zailtasun berezi bat sortzen du gure haurrentzat egungo giroan. Gazteleraren aditzak ez du horrelako berezitasunik, eta gaztelera giroa nagusitzen zaigunez Euskal Herriko zeinbait tokitan, errazago egiten zaie giro hor-tako haurrei gazteleraren aditza, eta euskaraz dihardutetenan gaztelera-ren interferentzia gehiegiz sumatu ohi da.

Hori kontutan harturik, bereziki landu behar den alorra dugu hau hizkuntz heziketan.

ADITZA

3 - 4 urteko adin bitartean

Landu beharko liratekeen erak

NOR

Naiz	nintzen
zara	zinen
da	zen
gara	ginen
zarete	zineten
dira	ziren

–Kanta bidez: ezagunak diren abesti ugari erabil daitake aditza lantzeko. Aldi bakoitzean, ordea, zein aditz-era landu nahi den kontutan harturik, era horiek lantzeko egokienak diren abestia hartu eta aukeratu behar lirateke.

NOR - NORI

zait
zaizu
zaio
zaigu
zaizue
zaie

–Ipuinak: landu nahi diren aditzerak sarri-sarri erabili behar lirateke aldi bakoitzeko ipuinetan.

Gero, ipuinari buruzko galderak egiteko orduan, aditz-era berezi eta zehatz batzu erabiltzera behartzeko eran egin behar lirateke galderak.

NOR - NORK

dut	didut
duzu	dituzu
du	dituzue
dugu	ditugu
duzue	dituzue
dute	dituzte

Era hontan entzundako ipuinak kontatu arazteak ere zenbait aditz-era ezabiltzera behartuko luke haurra.

–Zenbait doinu erraz harturik, irakasleak berak presta ditzake hizkuntz irakaskuntzarako letra labur egokiak. Hortarako silabak neurtzen eta rimak ipintzen jakitea aski da.

nau	naute
zaitu	zaituzte
du	dute
gaitu	gaituzte
zaituzte	zaituzte
ditu	dituzte

–Galde-erantzunen jokoa asko landu beharko litzateke. Hitz soil batez ez, baizik eta esaldi oso batez erantzutera bultza behar litzateke haurra hasera-hasera.

NOR - NORI - NORK

dizut	dizkizut
diot	dizkiot
dizuet	dizkizuet
diet	dizkiet
didazu	dizkidazu
diozu	dizkiozu
diguzu	dizkiguzu
diezu	dizkiezu
dit	dizkit
dizu	dizkizu
dio	dizkio
digu	dizkigu
dizue	dizkizue
die	dizkie
dizugu	dizkizugu
diogu	dizkiogu
dizuegu	dizkizuegu
diegu	dizkiegu
didazue	dizkidazue
diozue	dizkiozue
diguzue	dizkiguzue
diezue	dizkiezue
didate	dizkideate
dizute	dizkizute
diote	dizkiote
digute	dizkigute
dizuite	dizkizuite
diete	dizkiete

Era sintetikoak

Iibili	Egon
nabil	nago
zabiltza	zaude
dabil	dago
gabiltza	gaude
zabiltzate	zaudete
dabiltza	daude

Etorri	Joan
nator	noa
zator	zoaz
dator	doa
gatoz	goaz
zatozte	zoazte
datoz	doaz

—«Egin-esan» jolasako Irakasleak zenbait ekintza burutzen ditu eta egin ahala hitzez deskribatzen ditu. (Mahaiaren aurrean nago, kanpora nora, atea ireki dut, atea hertsia dut, harbelera noa...) Iraganeanek ekintza bakoitzak egin ondoren, presente puntualean «ari naiz» eta etorkizunen egin daiteke:

- atea hertsia dut
- atea hertsen ari naiz
- atea hertsiko dut

Gero haur taldeak, nahiz bakarrak, deskribatzen behar ditu irakaslearen ekintzak.

Gero ikasleek egin eta esan behar dute.

—«Zer falta da?» jokua. Ormirudi bat eskaini ondoren, bertan ageri pertsona, animalia nahiz gauzen zatiaren bat estalikoa zaie paper zati batez. Zer falta zaien esan behar du ikasleak. «Gizonari belarria falta zaio». «Zaio/zaizkio, zaie-zaizkie» aditz erak lantzen dira.

a. Irakasleak pertsona, animalia nahiz gauzaren baten silueta soila marrazten du harbelean. Gero, haurrek esan ahala, zatiak eransten zaizkio marrazkiari.

b. Gero irudi horri buruzko esaku-neak esanarazten zaizkie eta kopiarazten: zer, zertarako, nolakoa, zenbait, e.a.

Eduki	Jakin
daukat	dakit
daukazu	dakizu
dauka	daki
daukagu	dakigu
daukazue	dakizue
daukate	dakite

Eraman	Ekarri
daramat	dakart
daramazu	dakarzu
darama	dakar
daramagu	dakargu
daramazue	dakarzue
daramate	dakarte

4 - 5 urteko adin bitartean landu

behar liratken erak

NOR

naiz	nintzen
zara	zinen
da	zen
gara	ginen
zarete	zineten
dira	ziren

zaitut

dut

zaituztet

ditut

nuen

zenuen

zuen

genuen

zenuten

zuten

zaitugu

dugu

zaituztegu

ditugu

nituen

zenituen

zituen

genituen

zenitutzten

zitztzen

NOR - NORI

zait	zaizkit
zaizu	zaizkizu
zaio	zaizkio
zaigu	zaizkigu
zaizue	zaizkizue
zaie	zaizkie

NOR - NORI - NORK

dizut

diot

dizuet

diet

dizkizut

dizkiot

dizkizuet

dizkiet

NOR - NORK

dut	ditut
duzu	dituzu
du	ditu
dugu	ditugu
duzue	dituzue
dute	dituzte
nau	naute
zaitu	zaituzte
du	dituzte
gaitu	gaituzte
zaituzte	zaituztete
ditu	dituzte
nauzu	nauzue
duzu	duzue
gaituzu	gaituzue
dituzu	dituzue

didazu

diozu

diguzu

diezu

dizkidazu

dizkiozu

dizkiguzu

dizkiezu

dit

dizu

dizkit

dizkizu

dio

digu

dizkio

dizkigu

dizue

die

dizkizue

dizkie

dizugu

diogu

dizkizugu

dizkiogu

dizuegu

diegu

dizkizuegu

dizkiegu

didazue

diozue

dizkidazue

dizkiozue

diguzue diezue	dizkiguzue dizkiezue	gabiltza zabiltzate dabiltza	gaude zaudete daude
dide dizute diote digute dizuete diete	dizkidate dizkizute dizkiote dizkigute dizkizuete dizkiete	Etorri nator zatoz dator gatoz zatozte datoz	Joan noa zoaz doa goaz zoazte doaz
nion zenion zion genion zenioten zioten	nizkion zenizkion zizkion genizkion zenizkieten zizkieten	Eduki daukat daukazu dauka daukagu daukazue daukate	dauzkat dauzkazu dauzka dauzkagu dauzkazue dauzkate
nien zenien zien genien zenieten zieten	nizkien zenizkien zizkien genizkien zenizkieten zizkieten	Jakin dakit dakizu daki dakigu dakizue dakite	dakizkit dakizkizu dakizki dakizkigu dakizkizue dakizkite
zidan zizun zion zigun zizuen zien	zizkidan zizkizun zizkion zizkigun zizkizuen zizkien	Eraman daramat daramazu darama daramagu daramazue daramate	daramatzat daramatzazu daramatza daramatzagu daramatzazue daramatzate
Era sintetikoak		Ekarri dakart dakarzu dakar dakargu dakarzue dakarte	dakartzat dakartzazu dakartzza dakartzagu dakartzazue dakartzate
Iibili nabil zabiltza dabil	Egon nago zaude dago		

5 - 6 urteko adin bitartean landu

beharko lirateken erak

NOR

naiz	nintzen	du	dute
zara	zinen	gaitu	gaituzte
da	zen	zaituzte	zaituztete
gara	ginen	ditu	dituzte
zarete	zineten		
dira	ziren		
		nuen	nituen
		zenuen	zenituen
		zuen	zituen
		genuen	genituen
		zenuten	zenituzten
		zuten	zituzten

NOR - NORI

zait	zaizkit	ninduen	nindutene
zaizu	zaizkizu	zintuen	zintutene
zaio	zaizkio	zuen	zutene
zaigu	zaizkigu	gintuen	gintuzten
zaizue	zaizkizue	zintuzten	zintuzteten
